


TOKIKOM

2023ko ekaina | 237. zenbakia

aikor!

txorierriko aldizkaria

Aitor Aburto
Pasioa



Izan Aikorlagun!

Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemale ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).

-  4 Iritziak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  10 CD Derio 3. RFEF kategoriara igo da
-  12 Dantzaldia, Gure Señeaken alde
-  14 Gaztea eta... Ainhoa Markina arraunlaria
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Tourra uztailaren 1ean etorriko da Txorierrira
-  20 Aitor Aburto musikaria
-  25 Itsasne Zubiriren margolan-erakusketa
-  26 Sondikako San Joan jaiak
-  30 Lagatzu Eguna
-  32 Emaus Fundazioa
-  33 Herbarioa... Kamamila
-  34 Jaiak
-  35 Hileko argazkia... Bereziak
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorriketa eta Tximintx komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Maketatzailea eta erredaktorea: Gaizka Eguzkitza

Kolaboratzaileak: Iñaki Eguskizaga, Imanol Alvarez, @txiribita_mundi, Miguel Peñafiel, Gaizka Peñafiel, Jesus Maria Lasa, Joanes Camara, Alexandra Astobiza eta Alvaro Espiga

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Amaia Lekue (688 782 642)

Banaketa: Eragin

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik

Harriak erroetara

Hauteskunde artean idaztea tokatu zait. Hertsiki ez bada ere, politikari heldu, eta aspalditik buruan nuen artikulua idazteko aukera da. Nire burua ezkertiarizat dut, eta funtzionarioa naiz. Horiek horrela, datozen lerrootan idatziko dudanak pentsarazi dezake nire buruari harrika nabilela, baina gogoratu nahiko nuke haize handia dabilen lekuetan ere teilatuetan harriak jartzen direla. Sektore publikoaz nabil, kanporantz aldarrikatuz eta barrurantz gauzak ondo eginez defendatzen den horretaz. Izan ere, pribatizazioa kritikatzeko dugun bitartean –neu, lehena–, sektore publikoak ezaugarri ditu arauhaustean inpunitatea, lehiakortasunik eza, pizgarrien gabezia eta gardentasunik ezin justiziarik gabeko prozesuak.

Politika funtsean pertsona-talde bat kudeatzea dela ulertuta, sarrera txikia egin ohi diogu Batxilergoan. Edozein giza taldek asmo on eta antolaketa eraginkorrak behar ditu ondo funtzionatzeko.

Tamalez hori gehiegi suposatzea da sarritan, eta horri buruz asko idatzi da jada, baina ematen denan ere, zein baliok ardazu behar du kudeaketa? Lehiak ala kooperazioak? Filosofoak berriz ere dikotomia faltsuaren falzian galduta. Ortega y Gassetek erantzungo luke ikuspegi guztien baturak egiara hurbiltzen gaituela; egoerak baldintzatzen gaituela zioela kontuan hartuta, beharbada, abizenagatik esango zuen. Lan ona egiteko, segurtasuna eta babesa behar dugu gizakiok; baina, gauza guztiakin gertatzen den moduan, gehiegikeriek gabeziek bezain ondorio kaltegarriak dakartzate: kasu honetan, lasakeria eta utzikeria. Exijentzia eta egonkortasuna uztartzeko modua topatu beharko dugu, beraz.

Jakin badakit giza taldeen beste ezaugarri bat dela autokritikaren botoa sakatzen dutenak sorginkeriaz salatzea. Bada, autokritikarik gabe ez dago hobekuntzarik; horretan sines-



IMANOL ALVAREZ
Filosofia irakaslea

ten dudalako esaten dut hau guztia. Eskubideak ditugu, noski, baina baita betebeharrak ere, indibidualak eta kolektiboak, pertsonalak eta profesionalak. Nahiz eta sindikatu eta alderdi ezker-tiarrentzat diskurtso deserosoa izan, kalitateko sistema publikoaren defentsak bi oinarri ditu: batetik, existitu, indartu eta baldintza duinak eskatzea; eta bestetik, bertan egiten den lana ona dela bermatzeko neurriak ezartzea. Horrela jarraituz gero, guk geuk egingo diegu lana sistema publikoa deuseztatu nahi dutenei.

Udal- eta foru-hauteskundeetan 44 preso ohik hautagai-zerrendetan parte hartzeak bazterrak harrotu dauz Estaduan zein Euskal Herrian. Fiskaltzea eta gitxiengo bat izan ezik, ugariak izan dira horren kontra euren eretxi emon daben komunikabideak eta alderdiak, sentsibilidade falta edo demokraziari kalte larria eragitea be argudiatuz.

Zer dino, baina, Espainiako demokraziak? Konstituzioak oinarritzeko eskubide eta askatasun publikoen atalean, bere 25.2 artikuluan, ezartzen dau kartzelazigorra bideratuta dagoala preso berrituz gizaratean sartzea; eta Espetxeetako Lege Organiko Orokorrak, bestalde, bere 73. artikuluan hau dino: zigorra beterik,

Sensibilidadea eta demokrazia



IÑAKI EGUSKIZAGA
Abokatu erretiradua

zigortua ZEHARO birgizarteratu behar da herritar gisa dauzkan eskubideen erabileran.

Legearen helburua da, beraz, bere zigorra bete dauan preso birgizarteratzea eskubide guztiak berreskuratuta. Sentsibilidade argudioaz eskubide hori ez aplikatzeko exijitzen dabenak, azken finean, dira demokrazia onartzen ez dabenak eta benetako kaltea egiten deitsoenak. Baliteke batzuek holako kasuetan mina bihotzez sentitzea, baina hori ezin da traba izan gizarte demokratiko baten.

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTE

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

RPS: 18410

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Espainiako taekwondo selekzioak Ane Vallo derioztarra deitu du

a: Doyan

Datorren ikasturtean, Ane Vallo taekwondolari derioztarra Madrilera joango da, hango Errendimentu Handiko Zentroa egunero entrenatzera, Espainiako selekzioak beka eman diolako. Horrela, nazioarteko txapelketetan hartuko du parte. Orain arte, Vallo Doyan Derioko gimnasioan entrenatu da eta bertako entrenatzaileak poz-pez agertu dira gazteak egindako aurrerapausoarekin.

Azken urte honetan, izugarritzko garapena izan du 17 urteko gazteak: gogor entrenatu du eta emaitzak ere etorri dira. Horieta bat Espainiako Klub Txapelketan lortutako brontzezko domina izan da. Gainera, duela aste batzuk, Espainiako selekzioak deitu zion Madrilgo Errendimentu Handiko Zentroan entrenamenduak egiteko. Han Estatuko borrokalari onenekin batera egin zituen saioak, besteak beste, Jone Magdaleno bilbotarra, gaur egungo Europako txapelduna, hain zuzen ere.

“Jone laguna da eta Madrilen dabil entrenatzen, oso ona delako. Eta berak antolatzen zuen Aneren saioa. Espainiako selekzioa gazte bila zebilen eta Jonek Ane iradoki zien”, esan digu Iñigo Galan Doyan gimnasioaren entrenatzaileak. Vallok, antza, errendimendu ona erakutsi zuen hiru eguneko saio horretan, beka eskaini diotelako. “Batzuetan, borrokalariak eskatu behar dituzte bekak, baina Anek ez du zapide bat ere egin behar izan; bere maila-erengatik eman diote”.

Doyan gimnasioa

Doyan gimnasioaren arduradunak harro daude Valloz. “Batetik, Anek kluba uzteak pena ematen digu, datorren urteko egutegia planifikatuta genduelako eta Europako txapelketetara joateko asmoa ere bagenduelako (Paris, Errumania, Belgika...); baina bestetik, oso pozik gaude, berarentzat izugarritzko aurrerapausoa delako. Taekwondolari batenzat Errendimentu Handiko Zentroan entrenatzea da futbolari batenzat Athleticec jokatzeko bezalako, horrek goi-mailan lehia sartzea esan nahi duelako: balia-

bideak entrenatzeko, arerioak munduko onenak dira...”

Gaztea pozik dago aldaketarekin. “Hunkituta dago, taekwondo izugarri gustatzen zaiolako. Eta sakrifizio handia egin beharko du. Bere bizimodua bertan behera utziko du eta Madrilera joango da bizi izatera. Han, Batxilergoko Bigarren Maila ikasi beharko du, eta gainera, gaztelaniaz, betidanik euskaraz ikasi arren. Hala ere, ilusio handia du eta nik uste dut prest dagoela”, esan du entrenatzaileak.



Gure ikasleen ahotan

“Ekintzaile gisa ikusten dut nire burua”

Olatz Martija (Bilbo) Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza graduako 2. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Zergatik aukeratu zenuen LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) gradua ikastea? Nolako izan zen une hori?

Batxilergoko bigarren mailan nengoela, zer bide mota hartu nahi nuen aukeratzeko hasi behar izan nuen, eta LEINNen aldeko apustua egitea erabaki nuen, bere prestakuntza praktikoa, balioak eta talde-lanari ematen zaion garrantzia kontuan hartuta.

Nola baloratzen duzu LEINNen izan duzun esperientzia?

Modu positiboan baloratzen dut, LEINNen hasi nintzenetik asko ikasi dudalako.

Zer gustatzen zaizu gehien Mondragon Unibertsitatean?

Mondragon Unibertsitatean gehien baloratzen dudana ikaskideen, aholkularien, coach-en eta LEINN posible egiten duten langile guztien hurbiltasuna da.

Hasiera-hasieratik enpresa bat sortu duzue LEINN graduaren. Nola egiten da hori?

Erabiltzen dugun forma juridikoa Junior Enpresa Elkartea da, lege eta finantza ahol-



kularien laguntzarekin sortzen dena eta beste enpresa eta/edo partikular batzuekin legearen barruan jarduteko aukera ematen diguna.

Nolako proiektuak garatu dituzue zuen enpresarekin/taldearekin LEINNen barruan?

Oraintxe nago DUARA Fashion Innovation Agency-rekin. Bertan, moda-industriaren ingurumen-inpaktua murrizteko irtenbideak sortu genituen, berrikuntzaren eta ekintzaren bidez.

Zer iruditzen zaizkizu learning journey-ak edo atzerriko bidaia? Zein izan duzu bizitzeko aukera?

Atzerriko bidaia aukera paregabea dira. Nire kasuan, Berlinera eta Costa Ricara joateko aukera izan dut.

Etorrizko dagokionez, zein dira zure planak? Nola ikusten duzu zure burua?

Ekintzaile gisa ikusten dut neure burua, iraunkortasunaren inguruko hainbat proiektutan lanean. Inpaktua sortzeko gogo, eta beti hazten jarraitzeko asmoarekin.

Eguzkitzan landatutako eukaliptoak kendu egin dira

Lezama Bizirik elkarteak Eguzkitza inguruan eukaliptoak legez kanpo landatu zituztela ohartarazi zuen duela aste batzuk. Hori salatzeko, Bizkaiko Foru Aldundira eta Lezamako Udalera jo zuen elkarteak. Jakinarazi dutenez, Aldundiak eukaliptoak kentzeko agindua eman eta eukaliptoak kendu egin zituzten ekainaren hasieran. "Egindakoak berresten du zabortegi-enpresak Eguzkitza ahalik eta gehien degradatu nahi duela, agian, egoerak ahalbidetzen duenean zabortegia errazago garatzeko. Erne jarraituko dugu, eta erne jarraitzeko gonbitea egiten diegu lezamar guztiei", esan dute.

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Asier Gutierrez da ekaineko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albistek jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



Luis Vázquez deriotarraren taldeak lau medaila lortu ditu Arte Martzialen Open Nazionalen

Ekainaren 3an, Arte Martzialen Open Nazionala egin zen zazpigarren aldiz Torrejón de Ardozen, Madrilen. Luis Vázquez deriotarraren zuzendaritzapean, Bizkaiko taldeak lan bikaina egin zuen bertan, etxera lau medaila ekarri zituelako: urrezko bi medaila eta zilarrezko bi medaila, hain zuzen ere. Taldea hauek osatu zuten: Maitane Castaneirak, Iratxe Madariagak, Jose María Morgadok, Aaron Hernandezek eta Rafael Cordobak.

"Poz-pozik gaude gure kirolarien lorpenekin", adierazi du Vázquezek. "Euren onena eman dute eta erakutsi dute elkar babestu, errespetatu eta maite dutela;

izan ere, familia gara". Estatutako hainbat txokotatik ailegatutako kirolariak batu ziren openean, eta berriz ere ekintza arrakastatsua izan zen. "Espektatibak bete egin ziren, eta gustatuko litzaidake openaren antolatzaileen (OEKAM) eta zuzendari zen Cristina Álvarezen lana azpimarratzea, ahalegin handia egin zutelako hain ekintza handia antolatzeko. Estatutako eskoletako eta lehiakideen kalitate teknikoa ikusi ahal izan genuen bertan, eta elkarri dioten begirunea ere nabaria izan zen. Era berean, ikusleen jarrera eredugarria ere txalotzekoa izan zen".

L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OAKLAND
ENGLISH

Ale-ahaindegia

M^a Antonia Llodio TXPI

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ZAMUDIO
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Zamudioko pub mitikoa izan zen Salamandra, eta hainbat belaunalditako gautxorien habia. Hara joan ohi ziren nostalgiko batzuk batu dira eta diskofesta antolatzea erabaki dute, lokalari zein bertan lanean ibili ziren pertsonen omenaldia egiteko. Festa uztailaren 8an egingo dute, 22:30etik aurrera, Zamudioko jatetxe batean. Horri lotuta, "Yo fui al Salamandra" orria zabaldu dute Facebooken, eta bertan jaialdiaren xehetasunen berri emanez joango dira. Azaldu dutenez, Salamandra pubeko elementu bereizgarri batzuk berreskuratu dituzte eta festan jarriko dituzte erakusgai. Gainera, lokalean askotan ibiltzen ziren bi Dj-k Salamandran entzun ohi ziren abestiak ipiniko dituzte. "Elkartze ahaztezina izatea espero dugu". Hamarkada batzuk pasatu dira Salamandranen urrezko urteetatik hona, baina oroitzapenak bizirik jarraitzen dute bezeroen buruan. "Billar-mahaiak, arrainontziak, dianak... laguntzen zioten Albertori, zerbitzari trebatua eta zuhurra zena eta edaririk onenak prestatzen zituen".

Festa antolatu dute Salamandra puba gogora ekartzeko

Alberto, urteetan Salamandrako jabea



Hegalariak taldea jokalarien bila dabil umeen kategoriarako

Azken urteetan, Hegalariak Sondikako areto-taldeak ahalegin handia egin du kategoria guztietan taldea osatzeko. Hortaz, gaur egun taldea dute kategoria hauetan: aurrebenjamin, benjamin, ume, gazte eta nagusi. Gainera, bost urteko umeen taldea ere badute. Nolanahi ere, umeen kategorian bakarrik zortzi jokalaririk dituzte eta gustatuko litzaieke ume gehiagok beren proiektuarekin bat egitea; neskatoek zein mutikoek. Interesatuak taldera jo dezakete cdhegalariak@gmail.com helbide elektronikora idatzita, edo 610 207 814 (Os-



kar) eta 606 542 934 (Sobri) telefono-zenbakiei deituta.

Umeen taldea osatu dute Hegalariak taldeko jokalariek, Pozgari (Derio) taldeko jokalariek eta Indautxuko eskolako jokalariek. "Hiruren batasunari esker lortu dugu taldea aurrera ateratzea", azaldu dute Hegalariak taldeko ordezkariak. "Gurean ume guztiek dituzte ateak zabalik. Gainera, aipatu beharra dago areto-futbola ez dela kirol garestia, eta, beraz, guztiontzako aukerak daude bertan".

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

IZ
ILE APAINDEGIA
946036943
Txantxangeri n.2
ZAMUDIO
iz.drapachaga@gmail.com

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11 - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

920 kopa saldu ziren Lezamako Txakolinaren Egunean

Eguraldia lagun, ekainaren 4an, jendetza handia hurbildu zen Lezamara, Txakolinaren Egunez gozatzeraz. Bertan, herriko lau upategietako txakolina dastatzeko aukera egon zen: Basalbeiti, Erdikoetxe, Garkalde eta Magalarte. Guztira 920 kopa saldu ziren. Gainera, baserriko produktuak erosteko aukera ere egon zen plazan ipinitako saltokietan. Aurten, Josune Zabala merkataria eta Zorrizketan euskara elkartearen izendatu dira Lezamako txakolinaren enbaxadore.

Asier Dañoibeitia sommelierriak aurtengo txakolinaren ezaugarriak eta bikaintasuna goratzeko ardura izan zuen, eta ekitaldia Pedro Mari Goikoetxeak zuzendu zuen. Beste batzuen artean, Ekidazu abesbatzak, Kurutze dantza taldeak eta Arkaitz Estiballes bertsolariak hartu zuten parte goizean antolatutako ekintzetan. Era berean, Broken Izotz taldearen kontzertua egin zen eta umentzako ekintzak izan ziren. Giro polita izan zen eta Lezamara hurbildutakoak gozatu ahal izan zuten herriko txakolinaz, baserriko produktuez eta eguraldiaz.




a: Lezamako Udala



Pumptrack pista eraikitze lanak hasi dira Derion

Lanak ekainaren lehen egunetan hasi ziren. Azpiegitura berria Larrabarri ibilbidean egiten dabilta, Butroi kaleko bidegurutzearen parean. Egitasmoak puntuaziorik altuena jaso zuen 2022ko aurrekontuei lotutako parte hartze prozesuan, eta udalak 99.220 euro ipiniko ditu gauzatzeko; Bizkaiko Foru Aldundiak 28.051 euroko dirulaguntza eman dio. Espero da lanak irailerako amaituta egotea.

Pistak aukera emango du zenbait modalitateetako kirol-jarduerak praktikatzeko, hala nola skatea eta mendiko bizikleta, eta adin guztietako erabiltzaileek disfrutatu ahal dute, zailtasun-maila ertainekoa bada. Mila eta hirurehun metro karratu inguruko eremua hartuko du, eta zirkuituak bi ibilbide izango ditu: bata, 105 metrokoa; eta bestea, 55 metrokoa. Biek bi metroko zabalera izango dute. Guztira 30 oztopo edo arrapala egongo dira, jauziak egiteko eta erabiltzaileek praktikatu dezaten. Bestalde,



zirkuitua diseinatu da bira oso bat pedalei eragin gabe edo oinez bultzatu barik egin ahal izateko. Halaber, aldi berean 16 erabiltzaile ibili ahal dira pistan.

“Gure gazteei entzuten diegu, eta haien eskaerak errealitate bihurtzen ditugu. Pista hau da gazteentzako programak, zerbitzuak eta instalazioak hobetzeko egiten gabiltzan apustuaren beste adibide bat. Hala, egitasmoari esker, aire zabaleko kirol- eta aisialdi-eskaintza aberastuko dugu”, esan du Esther Apraiz Derioko alkateak.

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 Ionja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Txorierrri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Ekipatu
Laneko arropa

Burdindegia
Personalizatzea eta serigrafia
Kirol-ekipamenduak
Norbera babesteko ekipamenduak (NBEak) eta lan-segurtasuna

722 819 774 tiendasondika@ekipatu.com

Midnight Road da Txorierriko Musika- taldeen Lehiaketaren irabazlea



Baserri Antzokiak Txorierriko Musika-
taldeen Lehiaketa antolatu du lehen
aldiz, eta irabazlea Midnight Road
rock taldea izan da. Epaimahaiak bost
alderdi hartu ditu kontuan bere iritzia
hartzeko: eszenaratzea, afinazioa, letren
kalitatea eta originaltasuna, sormena eta
originaltasuna, eta musika-proiektzioa.
Irabazleak 500 euro jaso ditu sarritzat.

Antolatzaileek adierazi dutenez,
lehiaketan parte hartu duten talde
guztiek oso kalitate handia erakutsi dute
agertokiaren gainean. Hasiera batean,
12 talde aukeratu ziren lehiaketan parte
hartzeko, baina haietako bik –Broken
Izotz eta Rebel To Hope– bertan behera

utzi behar izan zuten kontzertua, eta
azkenean 10 talde ibili dira lehian. Hauek
dira: Cruce de Miradas, Broken Izotz, Santi
Matxete y Los Pielas Rojas, Perroloco,
Brokend, Isildu Zaitetz, Midnight Road,
Korroxiion, Nada Cool eta Garaje Drama.
Parte-hartzaile guztiek kutxa bana
txakolin jaso dute sarritzat. Txakoli Butroik
babestu du lehiaketa.

Lehiaketa hiru egunetan egin da eta
antolatzaileak pozik azaldu dira izan duen
erantzunarekin. Horrela, datorren urtean
berriro antolatzeko gogoz dabilta.
Parte-hartzaileak ere pozik agertu dira,
Txorierrin lehen aldiz halako musika-
txapelketa bat antolatu da eta.

Uda segururako eta inklusiborako gida

Derioko Udalak egin du gida,
eta helburua da herriko ume eta
gazteentzako kirol- eta jolas-
esperientzia positibo eta seguruak
sustatzea. Horretarako, kultura-
elkarteei eta kirol-klubei tresnak
eskaintzen dizkiete, babesia, tratu
ona eta inklusibitatea bultzatzen
dituzten udako jarduerak egin
ditzaten. Gida haur eta gazteen
babesean adituek garatu dute.
Gidak funtsezko gidalerroak
eskaintzen ditu, Derioko ume eta
gazteek dibertsioz eta garapen
personalez betetako uda ingurune
seguru batean gozatu dezatela
bermatzeko. Hortaz, jorratzen dituen
gaien artean daude jardueren
plangintza eta antolaketa, langileen
hautaketa eta prestakuntza,
ingurune seguru baten sorrera,
parte-hartzaile guztien inklusioa,
familiekiko komunikazio eraginkorra
eta jardueren jarraipena eta
ebaluzioa. Gida udal-webgunean
deskargatu daiteke.

Beste Bira, urrea eta brontzea Euskadiko Master Txapelketan

Ekainaren 3an, Euskadiko Master
Txapelketa izan zen Durangon
eta bertan Beste Bira Txorierriko
atletismo klubeko hiru korrikalarik
hartu zuten parte bertan: Igor
Garcia, Oscar Martinek eta Ruben
Fonseca. Korrikalariak 5.000
metroko lasterketan aritu ziren, eta
Garcia urrea eskuratu zuen, eta
Martinek, zilarra.



Familia urdin-gorria

CD DERIO | 3. RFEF kategoriara igo da

CD Deriok Ohorezko Mailako liga irabazi du, eta, ondorioz, 3. RFEF kategorian jokatuko du datorren urtean. Igoera lortu bezain laster, jokalariek, entrenatzaileek, batzar-kideek, herriko erakundeek eta zaletuek bat egin, eta jai erraldoia egin zuten herrian. Hori izan da aurtengo gakoa, batasuna, "familia" bezala jokatu duelako. Talde urdin-gorriak Estatu mailako kategorian jokatuko du lehendabiziko aldiz.

t: Gaizka Eguzkitza / a: CD Derio

"Azken urteotan klubaren mentalitatea desberdina da. Igotzeko presioirik ez dugu, baina mailari eustea baino zerbait gehiago lortu nahi dugu. Eta horretarako egiten dugu lan. Aurten, azkenean igo gara, hasiera kaskarra eta entrenatzaile berria eta gaztea izan arren", azaldu du Javi Rodriguez presidentea. Bere esanetan, igoeraren gakoa taldearen giro ederra izan da. "Familia bat izan gara. Urteak eta urteak daramatzat futboleant, baina aurten Deriok izan duen giroa ez dut gainerako taldeetan inoiz ikusi". Gainera, talderik indartsuena izan da defentsan. "Hainbat partidatan ez dugu golik jaso. Maila honetan funtsezkoa da akatsik ez egitea eta arerioenak aprobetxatzea".

Rodriguezek urte bi daramatza presidente. Bere eskutik, orain dela urte bi Derion sakabanatuta zeuden hiru taldeak –gizonezkoa, emakumezkoa eta Arteaga (eskola-kirola)– batu ziren klub berean, CD Derion. Batzordekideek kluba kudeatzen dute, baina kirol arloa Iñigo Muruaren Dimension Football enpresaren eskuetan utzi dute, eta euren hitzetan, emaitzak lortzen dabilta. "Gazte eta kadete mailako taldeak ere igo dira Lehentasunezko mailara, lehendabiziko aldiz".

Hiru talde batera dabiltzanetik, zaletuak ere batera joaten dira eta Derio urdin-gorria da. "Normalean 400-500 lagun batzen ditugu astebururo partidak ikusten. Igoera eguna ere berezia izan zen, zelaia jendez gainezka zegoelako.

Ez dakit zenbat lagun sartu ziren. Batzuek diote mila lagun egon ginela. Harmailetan 400-500 lagun egon daitezke eta leporaino zegoen, eta zelai inguruan ere ez zegoen zaletu gehiagorik hartzeko lekurik. Zelaia ez dut inoiz horrela ikusi".

Igoerak ez ditu ustekabez batzarkideak harrapatu, baina lehia bizia izan da. "Taldea ahalik eta indartsuenen osatzen saiatzen gara urtero, baina arerioek guk baino diru gehiago dute: Santurtzi, Balmaseda, Zalla... Zorionez, dirua ez da ahalguztiduna, eta jokalaria batzuek nahiago izan dute Derion jokatu, nahiz eta diru gutxiago kobratu. Eta horren meritua Muruarena da, lehengo taldearen kirol-zuzendariarena, horrelako jokalaria Deriora ekartzeagatik. Guk jokalaria maite ditugu eta ahalik eta ondoen tratatzen



saiatzen gara. Soldatetan eskaintzen ez duguna klubaren azpiegiturak indartzera bideratzen dugu: fisioterapeutak eta gimnasioa, adibidez. Ez dira gauza handiak, baina jokalariai eroso daude".

Deusto, Portugalete, Baskonia...

Nahiz eta 3. RFEF Estatu mailako kategorian izan, datorren urtean, CD Deriok bakarrik talde euskaldunen kontra jokatuko du. Gehienak bizkaitarrak izango dira –Portugalete, Baskonia, Deusto, Leioa...–, baina giputzak –Anaitasuna, Pasaia– eta arabarrak –Vitoria– ere izango dituzte aurrean. "Igoera lorpen handia da klubarentzat, ez garelako inoiz hain kategorian altuan ibili. Eta Derioko zaletuek poz handia hartuko dute, datorren urtean talde handiak Ibaiondo





"Jokalari batzuek nahiago izan dute CD Derion jokatu, nahiz eta diru gutxiago kobratu"

zelaira etorriko direlako: Portu, Baskonia, Leioa, Durangoko Culturala...".

Helburua, beraz, mailari eustea izango da. Edo ez? "Muturra sartu dugu 3. RFEF kategorian eta bertan gelditzea izango dugu helburu. Eta handik aurrera, ikusiko dugu; ea apurka-apurka hazi ahal garen. Zamudiok urte bi eman zituen Bigarren B Mailan, txalo bero bat haiei.

Hala ere, ez da gure helburua, Zamudiok aurrekontu handiagoa duelako. Aurten, talde bi gehiago egongo dira 3. RFEF kategorian, liga zabaldu dutelako, eta horrek erraztu ahal du gure helburua".

Kategoria berriak eskakizun berezi batzuk izango ditu. Kirol arloan, jokalaria berriak etorriko dira CD Deriora, baina presidentek erdia mantentzea espero du. Era berean, datorren denboraldia garestiagoa izango da. "Epaileen kostua bikoiztuko da, eta fitxak eta zigorrak ere garestiagoak izango dira. Lanean gabiltza, baina oraindik ez dakigu zer egingo dugun. Espainiako Federazioak dirulaguntza ematen du eta hitz egin behar dugu Derioko Udalarekin eta Athleticekin. Talde zuri-gorriarekin hitzarmena dugu. Espero dut herriak babesa ematen

jarraritzea. Dirua lortu behar da, baina betikoei gehiago eskatu barik".

400 jokalaria

CD Derio 1977an sortu zen. Gaur egun, 24 taldek eta 400 jokalarik osatzen dute kluba. Lehenengo taldea gaztea da, baina gehienak ez dira herrikoak. "Oso zaila da bakarrik derioztarrekin maila honetan lehiari sartzeari. Klub guztioi gertatzen zaigu. Batzuetan sei derioztar ibili dira lehenengo taldean, baina zaila da. Beheko kategorietan, aldiz, gehienak derioztarrak dira". Derio "pausoz pauso" doa aurrera, eta "ahalik eta profesionalen izaten" saiatzen da. Ez dute bere neurria zein den ahaztuko, baina hori zelaia adieraziko du eta datorren urtean 3. RFEF mailakoak izango dira.

UDA HONETAN LANDABARRIRA HURBILDU!

GURE ESKAINTZA

- ☕ LANEGARRA
- 🌊 LANEGARRA
- 🍷 LANEGARRA

OILASKO ERREA PATATEKIN TXULETOI MENUA PAELLAK

BURGER & SANDWICH

KANPOKO TERRAZA BARRIA

COCKTAIL & KOPAK

ETXEKO POSTREAK

Ta askoz gehiago...

DANONTZAKO IREKITAKO INSTALAZIOAK

- GURE MENUA**
- UDAKO IGERILEKUAK
- KAFETEGIA
- 4 PADEL PISTA
- 2 PISTA ESTALIAK
- 2 PISTA ESTALI GABEKOAK

ERRESERBAK : 687 775 683
(Bertan jateko edota enkarguak jasotzeko)

Gaztagnetxu Kalea 16, Derio
www.clublandabari.es

GURE ESKAINTZA OSOA

Deriok Gure Señeaken alde egin du dantzan



a: Alvaro Espiga

Ekainaren lehen zapatuan, Gure Señeak elkartearen aldeko ongintzako dantza-jaialdia antolatu zuen Kukudantza dantza kubatarren Derioko taldeak. Sarreraren salmenten bidez eta dohaintzei esker lortu zuten esandako elkartearentzat 1.347,20 euro batzea. "Jaialdia eta herriko beste ekintza batzuk egun berean izan zirela kontuan hartuta, oso balorazio positiboa egiten dugu hari buruz, itxaropenak gainditu zituen eta", esan dute elkarteko kideek. "Bertan parte hartu zuten taldeen zein publikoaren jarrera ezin hobea izan zen, baita dj-arena eta argazkilariena ere. Guztiek lan bikaina egin zuten, eta guztiei eman nahi dizkiegu eskerrak, haiek barik egindako ahaleginak ez zuelako ezetarako balio izango".

Jaialdian Derioko talde eta dantzari hauek hartu zuten parte: Piperdun flamenko-taldeak, Lainomendi euskal dantzen taldeak, Mikel Eguia eta Sara Macarrilla areto-dantzen dantzariak eta, jakina, Kukudantza taldeak. Horiez gainera, hauek ere izan dira ongintzako jaialdian: Meia Meia, Jorge y Bea bailan, Raices taldea, Portugaleteko Andaluziako Etxea, Filohelena Periplo elkarteak. Besteak beste, sabel-dantza, dantza grekoak, euskal dantzak, aretoko dantzak eta flamenkoa gozatzeko aukera egon zen Derion.





"Esfortzua muturreraino eramateak harr

t/a: Gaizka Eguzkitza

AINHOA MARKINA | arraunlaria

Hiru urte daramatzazu arraunketan. Kontatuko diguzu ibilbidea?

Deustun ibili naiz beti, baina lehenengo urtean, Lekeitioko Isuntzan aritu nintzen lagata. Izan ere, hasiberria nintzen eta Deustuk talde zoragarria zuen. Ez nuen lekurik eta Lekeitiora joan nintzen, dena ikasteko. Lutxanara ere joateko aukera izan nuen, baina Isuntzaren alde egin nuen. Eta ez naiz damutzen. Oso gustura egon nintzen bertan: itsasoa dute, herriko giroa, oso leku euskalduna da... Deustu eta Isuntza liga berean zeuden, ETE Ligan, bigarren mailan, baina bilbotarrak goiko postuetan ibiltzen ziren eta lekeitiarrak, behekoetan. Izugarri ikasi nuen Isuntzan, oso esperientzia polita izan zen. Hurrengo urtean, Isuntzak ez zuen trainerurik atera eta ni Deustura itzuli nintzen.

Zelan ikusten duzu denboraldia? Parte hartzeko aukera izango duzu?

Kanpoan gelditzea gogorra da, ne-guan gogor entrenatzen dugulako eta guztiok txalupan egon nahi dugulako. Baina uste dut baietz, arraunean ibiliko naizela. Taldea goiko postuetan ibiltzea espero dut, baina auskalo! Helburua igotzea da, baina lehia handia dago eta ligaz gainera, kanporaketak gainditu behar dira.

Gainera, denboraldiak luzeak dira, ezta?



Txikitan futbolean aritzen zen, baina belaunetan hainbat lesio izan zituenez, arraunketari ekin zion. Ainhoa Markina Deustu taldean dabil eta aurten Euskotren Ligara igotzeko itxaropena du. Udako denboraldia hastear dago eta gazte sondikoztarrak horren berri eman digu.

"Arraunketak konpromisoa eskatzen du: udan, oporrik ez; lagunekin aisialdi gutxi; elikadura zaindu..."

"Lehiakorra naiz: besteen zein nire buruaren kontra lehian sartzea atsegin dut"

Sondika eta kirola

Ainhoa Markina Ibarretxe (1997) sondikoztar peto-pettoa da. San Joan landatik hurbil bizi da eta arbasoak ere Sangroiz eta Goronda aldekoak dira. Leioan ikasi arren, bizitza herrian egin du beti. "Lau urterekin Gorantzaileak dantza taldean sartu nintzen eta oraindik jarraitzen dut dantzan. Eta ahal dudanean, herriko ekintzetan hartzen dut parte", esan digu. Hautes-kundeetan ere aritu da, EAJ-PNV alderdiaren Sondikako zerrenda osatu baitu. "Independiente sartu nintzen zerrendan, Naia Landa alkategaiaren familia eta nirea lagun minak garelako,

baina ez nuen zinegotzi ateratzeko aukerarik". Gaur egun gizarte-langilea da Lea-Artibaiko eskualdean. "Hainbat arlotako herritarrei aholkuak ematen dizkiegu: babesgabetasun egoeretan daudenei, mendekotasuna edo ezgaitasuna duten nagusiei, etorkinei... Pozik nago, baina lana gogorra da, ikusten dituzun egoerak errazak ez direlako. Han etorkin asko daude eta batzuk ez dute lanik, lehen itsasoan lan egiten zutelako. Denok uste dugu gure herrian horrelako egoerarik ez dagoela, baina egon badaude".

Kirola betidanik gustatu zaio. Etxean ez dira inoiz bereziki futbolzaleak izan,

apatzen zaitu"

Bai. Azaroan, denboraldiaurrea hasten dugu, gimnasioan eta ergometroan, arraunean ibiltzeko makina. Eta asteburu batzuetan uretara ere ateratzen gara. Hilabete batzuk beranduago, martxotik aurrera, txalupa txikien txapelketak egiten dira: batelak (lau arraunlari eta patroia) eta trainerillak (sei arraunlari eta patroia). Ondoren, estropadak txalupa handienetan (hamahiru arraunlari eta patroia) egiten dira ekainetik irailera bitartean.

Txalupa txikien txapelketetan parte hartzeko aukerarik izan duzu?

Ez. Horetan arraunlaririk indartsuenak sartzen dira lehian. Taldean 20 arraunlari gabiltza eta guztiok ezin gara aritu txalupa txikietan. Arraunlarien maila antzekoa da, baina denboraldiaurrean azterketak egiten dizkigute taldean, onenak nortzuk diren jakiteko, eta horiek aukeratzeko dituzte.

Uste bezain gogorra da arraunketa?

Bada, bada. Ordu asko ematen ditugu entrenatzen urte osoan, bospasei egun astean, eta udan, asteburu guztietan ditugu estropadak. Gainera, pisua eta elikadura zaindu behar da. Argala naiz eta ez zait kostatzen, baina zaindu behar da. Arraunketak konpromiso handia eskatzen du: udan, oporrik ez; lagunekin edo bikotekidearekin aisialdi gutxi; elikadura zaindu, behar bezalako atsedena hartu... Hala ere, emakumezkoen



estropadak gorantza doaz. Gero eta hobeto egiten dugu eta kirola hazi egin da azken urteotan, gero eta talde gehiago daudelako.

Eta hain gogorra bada, zergatik egiten duzu?

Kirola gustatu egiten zait. Gorputza eta esfortzua muturreraino eramateak harrapatzen zaitu, ez dakit zergatik. Lehiakorra naiz: besteen zein nire buruaren kontra lehian sartzea atsegina dut. Taldean askotan azterketak egiten dizkigute gure maila zein den jakiteko, eta taldekideak zein nire aurreko emaitzak mendean hartu nahi ditut.

Badirudi kirola oso lehiakorra dela. Giro ona dago arraunlarien artean?

Oro har, bai, baina lehia ere badago, noski. Taldekideekin, guztiok estropa-

detan egon nahi dugulako. Eta taldeen artean ere badago borroka. Lekeition nembilenean, Ondarroarren kontra; eta Deustun, Kaikuren eta Zumaiaren kontra, horiek ere lehenengo postuetan dabiltzalako. Baina lehia osasuntsua dela esan-go nuke.

Noiz arte ibiliko zara arraunean?

Agian lanarengatik datorren urtean arraunketa utzi beharko dut, denborarik izango ez dudalako, baina ez dakit. Kirola izugarri gustatzen zait.

Zer lortzea gustatuko litzaizuke?

Tira, igotzea polita izango litzakete, baina ez diot nire buruari helburu zehatzik ipintzen. Ea maila ona ematen dugun ligan eta, posible bada, Kontxako estropadan parte hartzeko aukera dugun. Eta bidean ahalik eta gehien disfrutatu!

baina Ainhoak horri ekin zion txikitatik: hasieran, ikastolako taldean; eta gero, Leioa taldean. "Futbola izugarri gustatzen zitzaidan, baina hiru aldiz apurto zitzaidan belauna eta hiru eba-kuntza egin zizkidaten meniskoan eta ligamentoetan. Beraz, amak emandako aholkuari jarraitu nion eta 18-19 urte nituela, futbola jokatzeari utzi nion. Pena izan zen, baina tira...". Kirola egiten Sondikako gimnasioan jarraitu zuen. "Oso gustura ibili nintzen bertan, hango jendea zoragarria delako, baina taldekirolak ditut gustuko eta zerbait berria egin nahi nuen. Ikusi nuen arraunketa eta "zergatik ez!" pentsatu nuen. Deustu taldekoei idatzi nien eta taldean sartu nintzen".

POLITEKNIKA TXORIERRI

hegan egiteko aukerak

Emari izena!
www.politeknikatxorierrri.eus

Bacillerato eta Lambide Medietan Bachillerato z. Farmacia Profesional

HETEL

Udaren hasiera, kontsumoen hasiera?

Uda iritsi da. Lasaitasun garaia ailegatu da gure seme-alabentzat, ondo pasatzeko garaia. Baina, hala da gurasoentzat? Ez beti. Udan gure umeek askatasun handiagoa dute, ez daude momentu oro helduen kontrolpean, eta disfrutatzeko irrikaz daude, esperientzia berriak bizitzeko prest. Hortaz, ez da arraroa gurasoen artean kezkek azalratzea: Norekin ibiliko da? Kontsumitzen hasiko da? Zelan ekingin dezaket?

Kontsumoen prebentzioa jaiotzetik hasten da. Bai, prebentzioan lan egiten ari gara beti: maitatzean, bidean laguntzen dugunean, bere autoestimua bultzatzean, komunikatzeko ahaleginak egitean... Baita norberaren umea ulertzen saiatzean ere.

Familiaren zeregina umea baliabidez hornitzea da. Bizitzari aurre egiteko baliabideak ematea klabea da drogen kontsumoa prebenitzeko. Adibidez, erabakiak hartzen laguntzeak, ezetz esaten irakasteak, edo norberarenganako konfiantza sustatzeak, besteak beste, presio sozialari aurre egiten lagunduko dio. Baliabiderik ez badu, taldeak eragin handiagoa izango du, eta erraztasun handiagoz hasi daiteke drogak kontsumitzen.

Umeak esponjak dira, imitazioz ikasten dute. Kontuz transmititzen ditugun mezuekin: Urtebetetzea? Ospatzeko, alkohola. Lanean arazoak? Ahazteko, alkohola. Lagunekin plana? Sozializatzeko, alkohola. Ondorioa? Gure seme-alabek berri onen aurrean alkohola saritzat hartzen dute, berri txarren aurrean anestesikotzat eta harremanak sortu edo mantentzeko, beharrezko baliabidetzat.

Drogarik ez kontsumitzea inprobablea da. Gizarte honetan ez da probablea inoiz ez hartzea drogarik. Errealistagoak izan behar dugu gure helburuekin: ahalik eta gehien atzeratzea lortu behar dugu. Entzunda izango duzue, ume eta nerabeen garuna garatzen ari dela, eta alkohola edo beste droga batzuen kontsumoak eragina izan dezakeela arretan, oroimenean, ikasteko gaitasunean, emozioen kudeaketan, koor-



dinazioan eta erlazioen garapenean, besteak beste. Saiatu behar dugu kontsumoaren hasiera garuna garatu arte atzeratzen. Horretarako, interesgarria izan daiteke umeak drogen eraginekiko duten ahultasunaz ohartaraztea.

Drogaz hitz egiteko momentuak aprobetxatu. Txikiak direnetik, egunerokotasuneko momentu batzuetan landu daiteke gaia. Erabili telebistan ikusten dituzuen berriak, edo gustuko dituen sailen eszenak, edo lagun bati gertatutakoa... Horietatik elkarrizketa interesgarriak atera daitezke. Eta ateratzen den gai bati buruz ezer ez badakit? A ze aukera ona! Gurasoak, guraso izateagatik ez dugu denetarik jakin behar. Gaiak ez badakigu zintzoak izan gaitezke eta bion artean informazioa bilatzeko aukera aprobetxatu.

Garrantzitsua da hitz egiteko ohitura sortzea. Horretarako, gurasoek ere gai izan behar dugu gure iritziak, emozioak eta kezkek haiekin partekatzeak. Eta gure umeak hitz egitean, entzute aktiboa mantendu behar dugu, kritikoeziak izan gabe: gure iritzia eman dezakegu, gustuko ez duguna argi utzita, baina elkarrizketa errieta bihurtzen bada, akabo!

Hurrengorako birritan pentsatuko du gurekin hitz egin baino lehen. Bestalde, kontuan izan behar dugu umeak nerabezaroan gurasoengandik aldentzeko nahia izan ohi dutela, eta baliteke gurekin gutxiago hitz egitea. Ez derrigortu, saiatu hitz egiten, baina gehiegi tematu gabe, bestela "pelma" hutsak bihurtzeko arriskuan sartuko gara. Lasai egon, komunikazio ohitura sortu bada, etorkizunean bueltatuko dira, edo erraztasun handiagoa izango dute laguntza eskatzeko.

Prozesuaren partehartzaile egin. Mugak eta arauak jartzea ere garrantzitsua da. Eta betetzen ez badira, ondorioak izan behar ditu eta bete behar dira. Baina kontuan izan behar dugu, arauak adinari egokitu behar direla, eta errazagoa izango da araua betetzea prozesuaren partehartzaile bihurtzen baditugu. Aholkua: negoziatuz garaitu atera direla pentsarazten badiegu, hobe.

Jarri martxan baliabide guztiak. Lankidetzan aritu beste familiekin: oso interesgarria da gure seme-alaben lagun gurasoak ezagutzea, eta haiekin komunikazioa mantentzea.



Onartuak izateko beharra

Gogoratzen duzu zure nerabezaroa? Zein zen zure kezkarik handiena? Ziur asko, aipagarrienetako bat taldeko kide izateko nahia zen, zure berdinen onarpena eta balorazioa jasotzea. Denok sentitzen dugu, neurri handiagoan edo txikiagoan, espero dugunera egokitzeko presioa; baina, nerabeen kasuan, gizartearentzat desiragarria dena lortu nahi izateak jorkabide desegokiak ekar ditzake. Izan ere, garapenaren une horretan, adinaren berezko heldutasun eza eta kide izateko gogo sutua uztartzen dira. Horregatik, gazteek beren nortasunetik urrun dauden eta benetan gauzatu nahi ez dituzten portaerak izan ditzakete, lagunaren aurrean irudi jakin bat emateko helburuarekin.

Nerabezaroa eta berdinen taldea

Gazteak pubertarora iristen direnean, haien dinamika psikologikoan eraldaketa garrantzitsua gertatzen da. Adingabea bere nortasuna bilatzen eta garatzen saiatzen da, eta, horretarako, familiarengandik urruntzen hasten da, eta gero eta garrantzi handiagoa ematen dio lagun-taldeari. Orduan, adin bereko lagunak gazteen erreferentzia-talde nagusi bihurtzen dira. Gurasoen iritzia jada ez da hain garrantzitsua; are gehiago, independentzia bilatzeko orduan, iritzi ho-

rren aurka ere egin dezakete. Hala ere, taldearen onarpena nerabearen kezka nagusia izango da.

Horrek ez luke arazo handiagorik ekarriko erreferentzia-talde berriak gizartearen balio komunak partekatuko balitu eta gaztearen onarpen-beharrak neurritzeko balitz. Hala ere, gerta daiteke beren lagun taldeak gorai-patzen dituen ezaugarriak gaztearen nortasunarekin eta balioekin gatazkan sartzea. Aukeratu beharko du taldearen dinamikara egokitzea ala bere printzipioei leial jarraitzea, baztertua izateko arriskua-rekin. Erabakia ez da batere erraza nerabezaroa bezain etapa delikatuaren.

Nola lagundu gazteei talde bateko kide izateko nahian?

Ez da posible, ezta egokia ere, desiragarritasun soziala ezabatzen saiatzea; desiragarritasun hori egokia izateko, funtsezkoa da txikitatutako autonomia, autoestimua eta norberarekiko konfiantza lantzea. Oinarri sendo horrek aukera emango dio nerabeari taldearen presioari askoz ere modu sinpleagoan aurre egiten. Era berean, egiaztatu da antsietate soziala duten gazteek intentsitate handiagoz sentitzen dutela onartuak izateko beharra eta errefusarekiko beldurra.



Horregatik, egokiagoak ez diren eta beren nortasunarekin bat ez datozen jorkabideetan erortzeko joera handiagoa dute. Azkenik, gazteentzat erreferente izango den berdinen taldearen ezaugarriek ere garrantzi handia dute. Garrantzitsua da gure seme-alabak euren konpainiak zuhurki aukeratzeko gai izatea, neurri handiagoan edo txikiagoan, euren garapenean eragina izango baitute. Ez da gauza bera kirola balioesten duen talde bat eta alkoholaren kontsumoa goraipatzen duen beste bat.

Laburbilduz, umeari erabaki egokiak hartzen erakutsi behar zaio, bere balioekin bat datozen lagunak aukeratzeko eta presioaren aurrean tinko eusteko.

Aurten ere Mihiluze txapelketak izugarrizko arrakasta izan du Txorierriko 10-11 urteko umeen artean. Txapelketan parte hartu duten gazte kopuruari erreparatzea baino ez dago horretarako: Txorierriko herri ikastetxeetan, 5. eta 6. mailan 332 ume egon dira klasean ikasturte honetan eta hortik 188 ume apuntatu dira lehiaketan: Deriotik 80 ume, Sondikatik 28; Larrabetzutik 30; Zamudiotik 24 eta Lezamatik 26 ume.

Aurtengo edizioan, Zamudioko bikote bat geratu da lehenengo (Eneritz Mallona eta Maddi Solaguren), Lezamakoa bigarren (Peio Lekerika eta Julen Olano), Deriokoa hirugarren (Enaitz Céspedes eta Iban Franco) eta Lezamakoa laugarren (Maria Ellacuria eta Aiora Goti).

Lau bikoteek familian disfrutatzen dituzten bidaiak jaso dituzte. Zorionak guztioi!

Txorierriko Mihiluze Txapelketa arrakastatsua



Tourrak uztailaren 1ean zeharkatuko du Txorierri

t: Gaizka Eguzkitza

Euskal Herrian hiru etapa izango ditugu: lehenengoa, Bilbotik Bilbora; bigarrena, Gasteiztik Donostiara; eta hirugarrena, Zornotzatik Baionara. Eta lehenengoak, hain zuzen ere, gurutzatuko du Txorierri. Etapa Bilbon hasiko da 12:55ean, San Mames futbol-zelaiaren alboan. Bizkaiko hiriburutik Loiurantz abiatuko dira txirindulariak eta berehala pasatuko dira Zabaloetxe, Larrakoetxe eta Lauroeta auzoetatik. Ostean, hainbat udalerritan ibiliko dira, ordu batzuk beranduago Txorierri berrira itzultzeko: besteak beste, Erandio, Getxo, Sopela, Plentzia, Bakio, Bermeo eta Gernika.

Kirolarien abiaduraren arabera Tourraren antolatzaileek kalkulatu duten moduan, lasterketa 16:26an helduko da Morga Ganara eta handik, Goikoelezea auzora (16:32an), Larrabetzura. Beranduago, Galdakaora desbideratuko da Elorritxuetatik eta berrira itzuliko da bailarara, Lezamara (16:57an), alegia. Bertatik, Tourrak gainerako herriak bisitatuko ditu BI-737 errepidetik: Zamudio (17:01ean), Derio (17:04an), Loiu (17:06an) eta Sondika (17:08an). Sondikatik Bilboko helmugara heltzeko, txirindulariek Pike Gana (17:14an) gainditu beharko dute, bi kilometroko zati benetan gogorra: % 9ko desnibela du eta, tarte batzuetan, % 15koa ere bada. Guztira, 182 kilometroko etapa izango da.

Tourra ikuskizun handia da eta, horretarako, euskal erakunde publiko guztiak ibili dira elkarlanean, Grand Départ Pays Basque 2023ren izenpean: Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiak, udalak, suhiltzaileak, Ertzaintza, larrialdietarako zerbitzuak... Erakunde publikoek iragarri zuten Tourra Euskal Herrira ekartzeak 12 milioi euroko aurrekontua zuela. Gune nagusia eta logistikoa Barakaldoko BECen kokatuko da.

Trafikoa etetea

Tourraren haritik prestatu den segurtasun-plana aurkeztu zen ekainaren

Duela hilabete batzuk iragarri zen, eta azkenean hemen dugu. Frantziako Tourrak Euskal Herria zeharkatuko du uztailaren lehenengo egunetan eta horrek trafikoa etetea ekarriko du gure herrietara. Txorierri uztailaren 1ean bisitatuko du *Grande Boucle*-k.

KM	ERREPIDEA	HERRIA	ORDUTEGIA	
			karabana	tropela (40 km/h)
0	BI-704	BILBO	10:55	12:55
0,6		Zabaloetxe (LOIU)	10:56	12:56
2,3	BI-707	Larrakoetxe (LOIU)	10:57	12:57
3,1	BI-3709	Lauroeta (LOIU)	11:00	13:00
140,9	BI-2713	Morga Gana	14:37	16:26
144,9		Goikoelezea (LARRABETZU)	14:44	16:32
146	BI-2713/BI-2713	LARRABETZU	14:45	16:34
154,9	BI-3732	Elorritxueta Gana	15:00	16:47
157,5	BI-3732	Elorritxueta (GALDAKAO)	15:04	16:51
161,5	BI-737	LEZAMA	15:10	16:57
163,9	BI-737	ZAMUDIO	15:14	17:01
166	BI-737	DERIO	15:17	17:04
167,5	BI-737	LOIU	15:10	17:06
169	BI-737	SONDIKA	15:22	17:08
170,4	BI-737	Izartza (SONDIKA)	15:24	17:10
172,4	BI-737	Pike Gana (SONDIKA)	15:27	17:14

hasieran eta han Josu Erkoreka lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak esan zuen Tourrak mozte "garrantzitsuak" ekarriko dituela eta era batean edo bestean eragin handia izango duela herritarren "gehienengan". Beraz, egun horietarako mugikortasuna aldeztu aurretik "planifikatzea" eskatu zuen. Izan ere, herritar askok oporrak hartuko

dituzte uztailaren hasieran eta horrek ere eragina izango du gure errepideetan.

Oro har, lasterketa egin baino lehen, gutxienez lau ordu lehenago moztuko dira errepideak. Enekuritik Bilboko sARBIDEAK arian-arian itxiko dira 8:00etatik aurrera, eta 18:15ak aldera normaltasuna berreskuratuko da. Artxandako tunelak, esate baterako, Txorierri hasita, itxita



egongo dira uztailaren 1ean, goizeko 6:30etik 18:30era Ugaskorako bidean (Deusturako noranzkoan); Begoñatik, berriz, 24 ordu iraungo du mozteak (ekainaren 30eko 22:00etatik uztailaren 1eko 22:00etara). Eta tuneletatik Salberaino (Rekalde Zumarkalerako noranzkoa), 8:30etatik 14:00etara itxiko da. Tourrak garraibide publikoetan ere izan-

go du eragina: tren, aireportua, autobusak....

Guztira, 1.800 boluntario ibiliko dira informazioa ematen, eta ibilbidean 166 sARBIDE jarri dira larrialdiak artatzeko. Gainera, 66 toki kritiko adierazi dira eta horietan segurtasun neurriak askoz handiagoak izango dira, bertan hainbat zaletu batuko direlako: esprint bereziak, anoa-

postuak, ganak... "Leku horietan kontrolak askoz zorrotzagoak izango dira eta errepideak gutxienez aurreko egunean moztuko dira", esan zuen Erkorekak. Pike Gana horietako bat da, esate baterako. Frantziako Itzulerak Bilbon izango du eragin berezia, ekainaren 28tik errepideak ixten hasiko baitira, lehenengo etapa hasi baino hiru egun lehenago. Egun horretan taldeak Etxebarria Parkean jarriko dira; eta hurrengo egunean, ekainaren 29an, Abandoibarran aurkeztuko dira.

Errutometroak, etapa bakoitzaren eskemak, Grand Départ Pays Basqueren webgune ofizialean kontsulta daitezke. Bestetik, herritarrek errepideetako gorabeheren berri jaso ahal dute 011 trafiko zerbitzuaren telefonoan, webgunean eta sare sozialetan. Era berean, mugikortasun-murrizketa guztiak Waze aplikazioan kargatuko dira laster. Zirkulazioaren aldaketak adierazteaz gainera, aplikazio horrek aukerako ibilbideak ere eskainiko ditu.

“Musika klasikoa hiltzen uzten

AITOR ABURTO IRACIBAL | musikaria



t: Itxaso Marina

Nola etorri zitzazun musikal horretan parte hartzeko aukera?

Lan-eskaintza baten bidez: entzunaldi batzuk egin nituen eta aukeratu ninduten. Esperientzia itzela izan da, bizitza osoan gogoratuko dudana. Goi mailako produkzioa izan da, eta maila profesionalean zein pertsonalean oso lankide onak eduki ditut. Baina alde negatiboak ere egon dira, batez ere musika-industriaren funtzionamenduaren inguru-koak: tamalez, horrelako enpresa eta proiektu handiak barrutik ezagututa, eta are gehiago diru-kantitate handiak mugitzen direnean, ohartzen zara benetako helburua eta lan egiteko era zeintzuk diren. Hala ere, gauza positiboekin gelditzea

Hogeita zazpi urteko lezamarra da klarinete-jotzailea, orkestra-zuzendaria eta musika-irakaslea; eta etxera itzuli berria da, *West Side Story* musikalarekin bost hilabeteetan biran egon ondoren. Guztira 139 kontzertu egin ditu Alemanian, Suitzan, Austrian, Frantzian eta Arabiar Emirri Batuetan. Esperientziaz baliatu gara, gaztearekin bere lan-ibilbideaz eta pasioaz solasean ibiltzeko.

gustatzen zait eta esperientziaren gehiena ahaztezina izan da.

Zer da musika zuretzat?

Ez da batere erraza galdera horri erantzutea... Momentu honetan lanbidea izateaz gain, musika bizitzeko era da niretzat, eta uste dut nire bizitzan musika dagoelako naizela zorionekoa.

Musikagatik eta musikarekin izan ditut milaka bizipen. Musika-munduan bizi daitekeena ezin da beste egoera batzuekin alderatu; entseguetan, kontzertuetan, bidaietan... Musika egiten dudan bakoitzean bizipen berri batean murgiltzen naiz, eta hori aberasgarria da oso.

Curriculum zabala

BEDMAR Bilboko Kontserbatorioan ikasi zuen, eta 2017an sartu zen Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Ikastegian, interprete moduan hezteko. Gaur egun, zenbait kamarako taldetako partaidea da, hala nola Dúo Aburto/Alciturri, Oreka Reed Quintet eta Trío Sostenuto, eta haiekin hainbat festibaletan hartu du parte, esaterako, Gaubeako Schubertiádan, Donostiako Musika Hamabostaldian, Kutxa Fundazioko Kamarako Musikan eta MusikEanen. Sariak ere jaso ditu: Bordelako Concours International de Musique “Challenge Aliénor” eta Reuseko Concours de Música de Cambra “Higini Anglés”.

Bestalde, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren eta Bilboko Udal Bandaren kolaboratzailea izan da, eta Espainiako Gazte Orkestraren eta Euskal Herriko Gazte Orkestraren partaidea. Orkestra Zuzendaritza Masterra egin zuen Katarina Gurska Goi Mailako Musika Ikastegian, eta 2019tik hona Leioako Musika Bandaren zuzendari titularra da. Era berean, zuzendari gonbidatua izan da Galdakaoko Da Capo Musika Bandan, eta CSKG Orkestra Sinfonikoa zuzendu du. Aipatutako curriculum zabalaz gainera, Lehen Hezkuntzako musika-irakaslea da.

“Musika egiten dudan bakoitzean bizipen berri batean murgiltzen naiz, eta hori aberasgarria da oso”

“Askotan ahazten dugu gure musikaren helburua dela besteak emozionatzea, gozaraztea eta gizartea hobetzea”

Kasualitatez. Musika betidanik gustatzen zaidan arren, gaztetxoa nintzela ez nuen musikaria izateko asmorik. Larra-betzuko Musika Eskolan ibilia nintzen, baina ez nuen orkestrako edo ganbarako musikan eskarmenturik, eta herriko banda batzuk kenduta, ez nuen musika-munduan inor ezagutzen, ezta ezer ere. Egia esan, Musikenen jo nuen lehen aldiz orkestra batean edo ganbarako talde batean, eta hori ez da batere ohikoa. Bada, unibertsitatean irakasle-ikasketak egiten nembilela, klarinete-irakaslea aldatu zuten eta berriak asko irakatsi zidan, eta klarinetea goiko mailan jotzeko tresnak eman. Jo eta ke ekin nion instrumentuari eta denbora laburrean asko hobetu nintzen. Behin irakasleak galdetu zidan ea benetan irakaslea izan nahi nuen, eta klarinetista eta musikari aparta izan ahal nintzela esan. Zerbait aldatu zen nire barrualdean, eta egun batzuk hausnartzen eman ostean erabaki nuen saiatzea. Unibertsitateko ikasketak amaitzen nembilen bitartean goi mailako kontserbatorioan sartzeko prestatu nuen nire burua, eta Lehen Hezkuntzako Gradua amaituta probak egin nituen Musikenen sartzeko, eta gainditu.

Zergatik klarinetea?

Kasualitatez ere bai. Gitarra ikasi nahi nuen musika-eskolan, baina lekurik ez zegoenez, saxofoia jotzen hasi nintzen anaiarekin. Saxofoi-irakasleak klarinetea ere jotzen zuen, eta berak erakutsi zidan soinu-tresna lehen aldiz. Saiatzen utzi zidan, eta gaur egun arte.

Banda- eta orkestra-zuzendaria ere bazara; jauzi naturala izan da?

Musika gizarte osoaren eskura egon behar den ondasuna dela pentsatzen duzu.

Musika gizartetik sortzen da pertsonen adierazpen moduan; hortaz, logikotzat jotzen dut musika jendearentzat egitea. Askotan, gehienbat musika klasikoaren munduan, pertzepzio hori galtzen dugula uste dut. Izan ere, gure munduan sartuta eta mundu elitista batean galduta, musikaren helburu garrantzitsuena ahazten dugu: gure musikaren bidez besteak emozionatzea, gozaraztea eta gizartea hobetzea. Musika klasikoa gizartetik aldendu dela ez da sekretua, eta, besteak beste, musikarion jarreragatik da. Batzuei galdetuko nieke musika norentzat egiten duten, haien buruarentzat ala publikoarentzat.

Ganbera-musika eta formatu txiki-koa bereziki duzu gustuko.

Nire ustez, ganbera-musika da maila goreneko musika egiteko bidea. Talde txikietan aukera duzu kide guztiekin komunikatzeko eta libre izateko. Gainera, normalean areto txikiagoetan jotzen da eta horrek areagotzen du musikarion eta publikoaren arteko elkarreragina. Orkestra batean, aldiz, jende asko dago, zuzendaria, jerarkia, antzoki handiak... Ez dut esan nahi orkestran jotzea ez zaidanik gustatzen; guztiz kontrakoa. Baina bi, hiru, lau, bost lagun artean musika egitea askoz bereziagoa da: aukera gehiago dituzu zure musika jendaurrean aurkezteko eta emaitza beti da esanguratsuagoa.

Nola hasi zinen musika-munduan?



Euskeraz, ekin eta ekin 35 urtez!

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



UDAKO IKASTAROAK (UZTAILEAN ETA IRAILEAN)

NOIZ	HELBURUA	ORDUTEGIA	ORDU KOPURUA	IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA
Uztailaren 3tik 27ra	Maila guztiak	9:00-14:30	90 ordu	Ekainaren 23a
Irailaren 4tik 27ra	Maila guztiak	Egunean 5 ordu	90 ordu	Uztailaren 14a
Irailaren 11tik 22ra	MINTZAMENA B1-B2-C1	Egunean 3 ordu	30 ordu	Uztailaren 15a
Irailaren 11tik 29ra (1)	B1-B2-C1	9:00-12:00 edo 16:00-19:00	45 ordu	Ekainaren 23a

(1) HABEren deialdi itxira joan diren ikasleentzat baino ez. Lehen deialdira aurkeztu diren ikasleak izan behar dira, idatzia edo ahozkoa gainditu ez dutenak; baita lehen deialdira joan ezin izan direnak ere, ekainean maila lortu ez dutelako

Goi mailako kontserbatorioan orkestra-zuzendaritza genuen hautazko, eta interesgarria iruditu zitzaidan, batez ere instrumentista gisa nire formakuntza sendotzeko. Gaitasunak nituela ikusi, eta bide hori ere garatzea erabaki nuen. Ahalik eta erreminta gehien izatea gustatzen zait, izan ere, nire ustez, arrakastarik handiena da hainbat aukera izatea eta egin nahi duzuna aukeratzeko gaitasuna izatea.

Oso alderdi ezberdinak dira.

Ni klarinetea jotzen sentitzen naiz erosoago, eta gehiago disfrutatzen dut. Zuzendari-lanetan ibiltzea ezberdina da, zeren eta erantzukizuna une oro zurea baita eta taldearen lidergoa hartu behar baituzu; horrek ahalegin eta lan handia dakar. Nire iritziz, hezkuntza eta mundu amateurrean dago nire lekua zuzendari moduan: eroso sentitzen naiz eta asko daukat eskaintzeko. Gazteak inspiratzea eta musikari ez profesionalei goi-mailako musika-esperientziak eskaintzea dut helburu, pentsatzen dudalako testuinguru horietan benetako gizarte-funtzioa duen musika egiteko aukera dagoela. Musikari moduan, talde amateurrekin talde profesionalekin baino gehiago disfrutatu dut askotan, gizarte-funtzio hori modu zintzoan eta naturalean sortzen delako; musika ez da bakarrik profesionalek arlo profesionalean egiten dutena.

Musika-banden kontzeptua ere aldatzen ari da.

Gero eta ezagutza gehiago dago, baita proiektu berritzaileak eta deigarriak egiteko interesa ere. Kaleak girotzeaz gainera, kalitateko musika eskaintzea da herriko musika banda gehien nahia gaur egun. Zuzendariak ere gazteak dira, eta heziketa handikoak. Esan liteke, guztion onurako, banda herrikoiak profesionalizatzen ari direla.

Irakaskuntza ere ibilia zara; nola-koa da Lehen Hezkuntzako umeei musika irakastea?

Gutziz ezberdina, helburuak ere ezberdinak direlako; musikak pisu txikia du hezkuntza eta, beraz, ez dago lan handia egiteko aukerarik. Umeei musika-mundua hurbiltzen ahalegindu naiz irakasle moduan, muskarako interesa izan eta iritzi kritikoa garatu dezatela, oinarrizko eza-gutzak barneratu, musikak euren garapenerako dituen onurak jakinarazi... Hau da, musikari diodan maitasuna haiei helaraztea eta bizitzan erabili dezaketen

tresna zoragarri hau erakustea. Nire aburuz, teoriak ez du Lehen Hezkuntza garrantzi handirik izan behar; eskola-saioak bizipenez bete behar dira musika-hezkuntza esanguratsua izateko.

Etengabeko ikaste-prozesuan ibili behar duzue musikariak?

Bai, goi-mailako kirola izatea bezalako da musikaria izatea: sasoiak izan behar duzu. Kirolari batek egunero entrenatu behar du emaitza onak lortzeko, eta guk ere bai, baina arlo gehiagotan: instrumentua bera, teoria, proiektu berriak diseinatzea, teknologia berriak ikastea... Era berean, musika-errepertorioak etengabe aldatzen dira eta proiektu berriak etengabe etortzen dira, eta, ondorioz, ezinbestekoa da prestakuntza. Kontzertu bakoitzak erronka berria dakar, eta horrek eskatzen ditu sormen-, lan- eta ikasketa-prozesu berri bat.

Pentsatu liteke zuena "publiko aditua-edo" dela.

Orkestrek badute publiko adituagoa; ganbarako musikak, aldiz, ez. Ganbarako musikako kontzertuak areto txikietan egiten dira, herriko gunetan eta herriak antolatutako zikloetan; ondorioz, hurbiltasuna transmititzen da, edo transmititu beharko litzateke, behintzat. Publikoa guztiz "amateurra" dela esango nuke, eta hori hain zuzen da gehien gustatzen zaidana. Kontzertu klasikorik inoiz ikusi

ez duena da nire entzule gogokoena: nire lana da pertsona horri musika-bizipen bat eskaintzea, harritzea eta emozionatzea. Gure erronka da aditua ez denarengan kontzertuetara joateko gogoa piztea; aditua, ordez, beti joango da. Nire ustez, ganbarako musika da horretarako tresnarik onena.

Kulturaz gozatzeko gogorik dugu?

Bai, hori nabaritzen da herriko ziklo eta kontzertuetan. Musika klasikoa ez da zertan bakarrik areto edo antzokietan egin; askotan, musika aretotik atera eta herriari hurbiltzea nahikoa da jendearen erantzuna lortzeko. Jendeak beldur dio aretora joateari, eta ulertzekoa da: ikusleen eta musikarien arteko distantzia, protokolo zaharrak, seriotasuna, elitismo-kutsua... Musikari klasikook argi izan behar dugu erakarri ezean publikoa ez dela guregana etorriko. Askotan hau entzuten dut: "Ez naiz kontzertu klasikoetara joaten, ez dudalako ezer ulertzen"; eta nire erantzuna da: "Ez da ezer ulertu behar; disfrutatzea nahikoa da". Publikoari hori helarazten ez badiogu, gutxi dugu egiteko.

Zer dago ikuskizun bakoitzaren atzean?

Lan itzela. Normalean, jendeak ez daki zein lanbide gogorra den: bizitza osoko lana eta sakrifizioa da. Orduak eta orduak ematen ditugu soinu-tresnan trebatzen, baita maila psikologikoan ere, eta lan



izugarria egin behar da aukera txikiak izateko. Publikoak ez du hori baloratzen, eta ez du zertan baloratu: kontzertua disfrutatzen etortzen da, eta nik ez diot nire lanari buruzko baloraziorik eskatuko, bere esperientziarena baizik. Izan ere, nire lana ez da ikasitakoa erakustea edo ikasi ditudan orduz harro egotea; nire lana da jendeari musika-bizipen bat eskaintzea. Ahaleginak merezi du? Bada, musikaria naiz eta musikaz bizitzeko aukera dut; hori baino hoberik ez dago.

Zein egoeratan zabilzate orokorrean?

Esan berri dut publikoak ez duela gure lana zertan baloratu; hala ere, administrazioek, gobernuek eta politikariek, bai: ezin zaio kultura sortzen, garatzen eta zabaltzen duenari bizkar eman. Gaur egun, ez da batere erraza Estatuan musikaz bizitzea: orkestren egoera nahiko tristea da eta musika klasikoa hiltzen uzten ari dira. Adibidea da hezkuntza: gizartea sendotzeko eta garatzeko tresna garrantzitsua da, baina zein da musikak eta arteak hezkuntzan duten papera? Dena dela, ez da sekretua; ingurura be-

“Administrazioetik ez dugu ez laguntzarik, ez erraztasunik jasotzen; ez dago ez interesik, ez ezagutzarik”

giratu, eta zenbat kultura-emanaldi ikusten duzue? Zenbat kalitateko ikuskizun daude? –Kalitate gutxiak ere ez dira asko-. Zenbat musika klasikoko kontzertu programatu dira azken urteotan Txorierri? Bestalde, *freelance* izatea oso zaila da, kontzertuak emateko aukera gutxi izateaz gainera lan-baldintzak oso txarrak direlako. Gure lanbidea ez da gainerakoenaren modukoa eta, beraz, gure egoera ezin da gainerako langileen egoerarekin alderatu, guztiz ezberdina delako eta lan-baldintza bereziak behar ditugulako. Administrazioetik ez dugu ez laguntzarik, ez erraztasunik jasotzen; ez dago ez interesik, ez ezagutzarik. Ondorioa da musikari gehienak atzerria

joaten direla euren ibilbidea egitera edo musika uzten dutela.

Gaur egungoetz gainera, musika-proiektu berririk duzu?

Bai, eta ideia gehiegi. Etengabeko sorkuntzan aritzea gustatzen zait. Udan, esaterako, zuzendari-laguntzaile ibiliko naiz Euskal Herriko Gazte Orkestran (EGO). Erronka interesgarria da niretzat, orkestra horretan musikari aritu naizelako, eta orain beste aldean egotea arraroa izango da. Polita izango delakoan nago eta gogotsu hartu dut EGOn proposamena.

Eta helbururik?

Musikaz bizitzea. Lan handia dakar horrek, musika klasikoaren mundua ez delako batere erraza. Hala ere, pausoz pauso joatea gustatzen zait. Esperientziagatik badakit mundu honetan epe luzearako planak egitea utopia dela. Momentu oro azaltzen dira bide berririk, eta helburu bakarra izan behar da musikari zein profesional moduan garatzea eta aktibo egotea. Ezin dut esan hemendik urtebetera zertan ibiliko naizen, ez dakidalako eta ez dudalako jakin nahi.



TALDEA GURENA
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

BABESPEKO APARTAMENTUAK
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

ZURE NEURRIRA



EGONALDIAK EGOITZEAN
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



Naturaren kolorea eta mugimendua



Ekainaren 30era arte aukera dago Itsasne Zubiri sondikoztarraren "Natura, kolorea eta mugimendua" margolan-erakusketa ikusteko. Bere izenburuak iradokitzen duenez, erakusketa naturan inspiratuta dauden 15 margolanek osatzen dute eta haietan kolorea eta mugimendua dira nagusi. Margolanak Sondikako udal-liburutegiko erakusketa-aretoan daude ikusgai.

Paisaien erakusketa proposatu du Zubirik. Kolore bizi-biziz betetako paisaiak dira eta, bat izan ezik, gainerakoak olioak erabilia margotu ditu; aipatutako sal-

buespen hori grafitiak egiteko errotiladoreak erabilia margotu du, akrilikoaz hain zuzen. Margolan gehienak, Sondikatik, garbitokiko bidetik egindako paseoetan bururatu zaizkio. "Oso leku ederra da, Sangroiz eta Ola artean, eta askotan ibiltzen naiz hortik, neure burua lasaitzeko. Leku hezea da, eta natura borbordago. Errepide txikia da eta gustatzen zait begiratzea bertan sortzen diren formei, mugimenduei eta sakontasunei. Pasaia aldakorra da eta urtaroen arabera usain bat edo bestea du". Bestalde, margolanetako bat Urdaibaiko paisaia batean

dago inspiratuta; beste bat, Asturiaseko paisaia batean; eta beste bi, mendian.

Mugimendua eta kolorea nagusi dira koadroetan. "Saiatzen naiz mugimenduak sortzen dituen formak islatzen, arreta ematen didaten formak, bira bat... Batzuetan argazkia ere egiten dut. Margolanetan momentu horretan sentitzen ditudan koloreak erabiltzen ditut, eta nahastatu egiten ditut kontrastea sortzeko. Izan ere, nire ustez, kontrastea da naturaren ezaugarria. Oso kolore biziak dira: arreta beti ipintzen dut argitasunean, argiak kolorea dakar eta". Bere ustez, gizakiok kolore gehiago sartu beharko genuke gure bizitzan. "Batez ere umetan eta ilusioa dugunean dena da koloretsua: jostailuak, arropa, lekua... Gero, helduak egin ahala, aldendu egiten gara koloretik... Nolanahi ere, kolorean bizitza dago, eta bizirik dagoen bitartean naturak ere koloreak ditu". Era berean, pentsatzen du naturan gaudenean ahalegindu behar dugula lehen begiratuan ikusten duguna baino gehiago topatzen. "Bide bat, mugimendu bat, aurreko batean ikusi ez dugun zerbait...".

Sondikako erakusketa ez da Zubirik momentu honetan duen erakusketa bakarra. Expodistrito Bilboko erakusketa ibiltarian "Ume begia" margolan-erakusketa du. Hori Santutxun dago gaur egun, baina aurretik Txurdinagan, San Franziskon eta Errekalden ere egon da. "Koloreak eta formak jorrotzen ditut erakusketa horretan. Oinarrizko formak bilatzen ditut zerbait azaltzeko. Ume baten ikuspuntutik eginda dauden forma basikoak dira, eta saiatzen naiz haien barruan beste forma batzuk topatzen. Koloreak nahasten ditut eta emaitza da oso margolan deigarriak".

Sua prest Sondikan

Ekainaren 23tik 24ra bitartean, asteburu bizi-bizia izango dute Sondikan, San Joan jaiak ospatuko dituzte eta. Asteburua ekintzaz betetako etorriko da eta sondikoztarrek zail izango dute atsedena hartzea. Izan ere, ia 40 ekitaldi antolatu dira adin eta gustu guztientzat. Haien artean daude kirol-probak, musika-saioak, gastronomia-lehiaketak, erakustaldiak, eta, noski, San Joan kalejira eta sua.



Txupina bariku arratsaldean botako da eta, ohikoa denez, Gorabide elkar-tearen kideek lagunduta jaietako zapiak banatuko dira. Hamahiru urtetik 18 urtera bitarteko gazteek "Humor amarillo" ekitaldian parte hartu ahalko dute, eta bertan proposatzen zaizkien erronkei aurre egin. Aldez aurretik izena emanda ez badute, hori 17:00ak arte eman dezakete Hegalariak taldeko txosnan. Talo txikiak dastatzeko aukera egongo da, eta zortzi urtetik 12 urtera bitarteko umeek Iron Team ekintzan parte hartu ahalko dute.

Lagun-taldeen bost probari egin beharko diete aurre: igeri egitea, bizikletaz ibiltzea, patinetan ibiltzea, saskiratzeak eta korrika egitea; haiek ere izena eman dezakete Hegalariak taldeko txosnan.

Ekitaldi nagusiak izateaz gainera, San Joan gaueko kalejira eta sua dira Sondikako jaietako ekitaldirik ikusgarrienetakoak eta, hortaz, erakargarrienetakoak. Argi-zuziak 22:15etik aurrera banatuko dira udal-liburutegian eta handik kalejiran irtengo da San Joan landaraino. Batu Klang eta Batikumba taldeen girotuko dute kalejira.

"Pike bidea bizikletaz igoko da bigarren; igoera hori giltzarria izango da Tourren Bilboko hasieran"

San Joan landan sua piztuko da, eta Pentagrama soinu-tresnen elkar-tearen laguntzaz abestuko da herriko zaindariaren omenez. Oxabi erromeria taldeak eta Dj Markelinek musika ipiniko diote San Joan gauari.

Zapatua ekintzaz beteta etorriko da, herritar guztiek, umeek zein gazteek eta helduek, disfrutatu dezaten. Sukalki txapelketan izena emateko epea goizgoizean zabalduko da Hegalariak taldearen txosnan. Gainera, Pike bidea bizikletaz igotzeko saioa antolatu da bigarren. Gogoratu behar da "Pike Horma" igoera giltzarria izango dela Frantziako Tourren Bilboko hasieran.

Ipar Elaiak txistu-taldea kalejiran ibiliko da txokorik txoko, eta tiragoma txapelketa egongo da. Meza egingo da, eta Master Chef Txiki ekitaldia, zortzi urtetik 13 urtera bitarteko umeentzat. Izena ematea Hegalariak taldearen txosnan egin ahalko da 11:30etik 12:00etara. Haurrentzako jolas-parkea izango da, eta jubilatuentzako kopaua, eta El Despiste fanfarreak herriko kaleak girotuko ditu arratsaldera arte.

Igel-toka solidarioa

Sukalkia aurkeztu, eta Hegalariak taldeak mus txapelketa antolatu du bazkalosterako. Dana klubaren eskutik, gimnastika erritmikoaren erakustaldia izango da, eta herri-lasterketa egingo da hirugarrenez. Udalbatza-aretoan, balkoi apainduen lehiaketaren sariak emango dira, eta Tortilla txapelketan izena ematea zabalduko da Sondika klubaren txosnan. Bestalde, Beti Galdu taldeak pala erakustaldia antolatu du arratsalderako 7etarako Gorondabeko kiroldegian, eta Gorondabekon ere hirukoak jaurtitzeko aukera egongo da. Tortillak aurkeztuko dira, eta Dj Vithyk motorrak berotuko ditu agertokira Akerbeltz erromeria taldea igo arte. Gaua A&B Showek birliduko du.

SONDIOKA

Joan Deunaren
Jaiak

2023

EKAINAK 23-25





Oxabi taldea. a: Gaizka Peñafiel

Domekan, barrakak merkeago izango dira 10:30etik 12:00etara. Eguna Punta Galea Txirindularitza Sozietateak antolatutako eskolen arteko lasterketa baten eskutik hasiko dute sondikoztarrek, eta Ipar Elaiak txistu taldeak doinuz beteko ditu herriko bazterrak. Dj Urtzak disko txiki festa egingo du txikientzat, eta El Despiste fanfarrea hara eta hona ibiliko da eguerdian. Mapatxe motorzaleen elkar-teak ere ekitaldia egingo du goizean.

Aurreko urteetan moduan, kirol- eta kultura-elkarteentzako herri-bazkaria izango da Hegalariak taldeak antolatuta. Ondoren, igel-toka solidarioa egongo da eta batzen den dirua Friedreicheko ataxia ikertzera zuzenduko da. Sukar taldeak girotuko du erromeria, eta Nagusien Etxean dantza izango dute. Gorantzaileak dantza-taldeak dantzen agerraldia eta era-

*“Etxera lagunduta
itzultzeko zerbitzua
egongo da herritar
guztientzat, 01:00etatik
05:00etara”*

kustaldia egingo du, eta ostein, jaiak amaitzeko, erromeriak jarraituko du Sukar taldearekin.

Sondikako Udalak gogora ekarri du herrian ez dutela portaera sexistarik onartzen, ezta jaietan ere. Beste aldetik, eta iaz moduan, etxera lagunduta itzultzeko zerbitzua egongo da herritar guztientzat, 01:00etatik 05:00etara.

Ekainak 23, barikua

- 18:00 Txupiak eta Gorabide elkartearen laguntzarekin zapiak banatzea.
- 18:00 "Humor amarillo", 13 urtetik 18ra bitarteko gazteentzat.
- 18:15 Talo txikiak dastatzea.
- 18:30 Iron Team III, zortzi urtetik 12 urtera bitarteko umeentzat.
- 22:15 Argi-zuziak banatzea liburute-gian.
- 22:30 Kalejira, Batu Klang perkusio taldearekin eta Batikumba taldearekin. San Joan sua, Pentagrama Kultura Elkar-teak girotuta.
- 23:30 Oxabi eta Dj Markelin.

Ekainak 24, zapatua

- 10:00 Sukalki txapelketan izena ematea, Hegalariak taldearen txosnan.
- 10:30 "Muro de Pike" II. igoera bizikletaz.
- 11:00 Kalejira, Ipar Elaiak txistu-taldearekin.
- 11:30 Tiragoma txapelketa.
- 11:30-14:00 Haurrentzako jolas-parkea, landan.
- 12:00 Meza.
- 12:00-14:00 Master Chef Txiki.
- 12:30-15:30 El Despiste fanfarrea.
- 13:30 Jubilatuen kopaua.
- 14:30 Sukalkiak aurkeztea.
- 16:30 Mus Txapelketa, Hegalariak antolatua.
- 17:00 Gimnastika erritmikoaren erakustaldia, Dana klubak antolatua.
- 18:00 Sondikako III. Herri Lasterketa.
- 18:00 Balkoi apainduen lehiaketaren sariak banatzea, udalbatza aretoan.

Txorierri Et., 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31

PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRE

Txorisol 4, behea B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Ekipatu
Laneko arropa

722 819 774 tiendasondika@ekipatu.com

autoeskola SONDIKA

Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurrezaga 2
Telefona: 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Iturriondo plaza, 2 (goia)
Telefona: 94 445 90 67
48007 Zurbaranbarri - Bilbo

Jai-egitaraua



- 18:30 Tortilla txapelketan izena ematea, Sondika klubaren txosnan.
- 19:00 Pala erakustaldia, Gorondabeko kiroldegian, Beti Galdu taldearen eskutik.
- 19:30-20:30: Hirukoak jaurtitzea, Gorondabeko kiroldegian.
- 20:00 Tortillak aurkeztea.
- 22:00 Dj Vithy.
- 23:30: Akerbeltz eta A&B Show.

Ekainak 25, domeka

- 10:30 Txirrindularitza-eskolen lasterketa, Punta Galdea Txirrindularitza Sozietateak antolatua.
- 11:00 Kalejira, Ipar Elaiak txistu-taldeak girotuta.

- 12:00-14:00 Disko txiki festa, Dj Urtzarekin.
- 12:30-15:30 El Despiste Fanfarrea.
- 13:00 Mapatxe motorzaleen elkarte.
- 14:30 Herri-bazkaria, kultura- eta kirol-elkarteentzat, Hegalariak taldeak antolatua.
- 17:00 Igel-toka solidarioa (Friedreichecko ataxia).
- 17:30 Erromeria, Sukar taldearekin.
- 18:00 Dantza, Nagusien Etxean.
- 19:00 Dantzen agerraldia eta erakustaldia, Gorantzaileak dantza-taldearen eskutik.
- 20:00 Erromeria, Sukar taldearekin.



yedra
floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2 EGUNERO
635584941 8:00-22:00

IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 688 601 871
fisiobarrondo@gmail.com

ALZORA

Sondikako euskara elkarte

NDU PASA
JAIETAN!

i: Jesus Maria Lasa

“Lagatzuren helburuetariko bat beti izan da euskal kultura zabaltzea eta ezagutaraztea”, azaldu deuskue euskera alkartearen kideek. “Helburu horri lotuta, harreman berezia dogu Iparraldega eta Heletara joan ohi gara urteetan, handik Baigorriko Nafarroaren Eguna joateko. Gainera, orain dala urte batzuk Euskal Astearen egitarauaren barruan Mas-karadea egin genduan Gaztedi Santu-txuko dantza taldeagaz batera”.

Zuberoan baino gelditzen ez dan antzerki-generoa da pastoralala, eta bertan personaia ezagunak goratzen dira, eta gertaera historikoak gogoratu. “Zamudion badogu personaia garrantzitsu bat: Carmen Mendiguren. Carmen gerra aurretik be bazan maistrea, eta gerra-denporean Ingalaterrara joan behar izan eban; errepresaliatua izan zan, baina akabuan plazea lortu eban Zamudioko eskolan. Halangopertsonabatiomenaldia egin behar jakola pentsau genduan, eta, gainera, Iparraldeko kultura gurean ezagutzera emoteko gogoagaz lotu ahal genduala”. Bestalde, aitatu beharra dago Mendiguren Lagatzuri babes adierazo eutsien lehenengo herritarretako bat izan zala. “Lagatzu sortu genduan, euskera alkartearen pluraltasuna erakutsi gura izan genduan, eta danon alkarrea zala adierazo. Horretarako, herriko jenterik esanguratsuen argazkiak batu genduzan kartel baten, eta hareen artean Carmenena izan zan”.

Carmen Mendigurenen pastoralala zenbait arrazoigaitik izango da berezia. Bere iraupena da lehena. “Pastoralala Zuberoan baino ez da egiten gaur egun. Antxina, egun bat eta erdi irauten eban; gero goiz eta arratsaldeko jarduna izatera pasau zan, eta gaur egun hiruzpalau orduko kontua da. Gurea laburragoa izango da eta ordubete eta laurden iraungo du”. Hizkuntzea be bereizgarria izango

“Carmen pertsonaia inportantea izan zan, eta pentsau genduan berari omenaldia egitea, eta pastoralagaz lotu”

Historikoa izango da Lagatzu Eguna

Bagilaren 24an, Lagatzu Eguna ospatuko dabe Zamudion, eta hango euskera alkarreak proposamen berezia egingo deusku, euren berbetan historikoa izango dana: Carmen Mendigurenen pastoralala. Ekintzan alderdi bi buztartuko dabez: alde batetik, Carmen Mendiguren zamudioztarra ekarriko dabe gogora; eta bestetik, Iparraldeko pastoralala hurbilduko deutsee ikusleei.



da. "Bizkaieraz edo Zamudioko aldaeraz egingo dogu".

Esan deuskue euren ezin izango dala Zuberoako pastoralagaz alderatu, "maisuak eta maistrak zuberotarrak diralako". Halandabe, ahaleginduko dira hango pastorealean oinarrituta Zamudiora Carmen Mendigurenen historia ekartzen. Ohikoa denez, ikuskizunean buztartuko dabez antzerkia, dantzea eta musika. "Antzezlanak koplatan oinarrituko da. Aitzin predikuan, edo sarreran, gaia aurkeztuko da; gero Carmenen bizitzaren inguruko pasarteak aitatzuz kopla batzuk egongo dira; eta amaitzeko, amaierako predikua". Bando bi egongo dira: gorriak eta urdinak. "Gorriak txarrak izaten dira; gure kasuan, Franco eta frankistak. Beste pertsonaia bi be badagoz, Satan eta Anas, zirikatzaileak direnak eta faxistakak lerrokatuko diranak. Urdinak dira zintzoak, Carmen bera, gudariak... Borroka batzuk egongo dira eta akabuan irabaziko dabe irabazi behar dabenek".

Herri osoak parte hartu ohi dau Lagatzuren ekitaldietan. "Normalean, gu baino askoz handiagoak diren ekintzak antolatzen doguz, eta ezin izango geunkezk guk bakarrik aurrera eroan". Oraingo honetan be Hiru Bat dantza-taldearen umeen eta monitorean laguntzea eukiko dabe, baita Bertoko soinu-tresnen alkar-tearen eta Zamudioko Kamara Korralaren laguntzea be bai. Horreei gehitu behar jakez entseguetan ibili diran herritarrak eta atrezzoaz arduratu diranak. Pastorealean 100 lagun inguruk hartuko dute



parte. "Lagatzutik eskerrak emon gura deutsaguz laguntzen dabilzan guztiei euren ahaleginagaitik. Oso inportantea da guretzat eta azpimarratu gura geunke haren laguntza barik ez geunkeela halango gauzak egiteko asmorik be izango".

Egun osoko jaiak

Pastoreletan libretoak banatzen dira publikoaren artean, ikusleek antzezlanari errazago jarraitzeko. Oraingoan be behin behineko libretoak banatuko dira egunean bertan. "Behin betikoa berandutxoago atarako dogu; izan be, gure helburua da eguneko argazkiak be libretoan jasotzea, betiko gelditu daitezkan. Ahal dala, pastoreala grabatu eta CD bat be atara gura dogu.". Euskera Alkarteak espero dau aur-

"Espero dogu jenteak ondo pasatzea, Carmen Mendiguren gogoratzea eta pastoral bat zer dan ikastea"

tengo Lagatzu Eguna historikoa izatea. "Alde batetik, Carmen Mendiguren bera Zamudioko pertsonaia historiko inportantea da guretzat; eta bestetik, lehenengo aldia da Zamudion halango ekintzea egiten dala, eta zentzu horretan be historikoa izango da".

Lagatzu Eguna bagilaren azken zapatuan ospatzen dabe eta ohikoa da bariku arratsaldean be ekintzak egitea. Aurten, barriz, ez da barikuan ekintzarik egongo, San Joan gaua dalako eta euskera alkar-tekoek ez dabez udal-ekitaldiak oztopatu gura izan. Edozelan be, egun osoko egitaraua antolatu dabe zaturako. Carmen Mendigurenen pastoreala 12:00etan izango da, eta 13:30ean kalejira egingo dabe Bertoko eta Kantarelux taldeek girotuta. Taberna Ibiltariak euskal kantuz eta doinu beteko ditu bazkalostea eta umeentzako jolasak be egongo dira. Erromeria 20:00etan hasiko da Gora Herria taldearen eskutik, eta gauera arte iraungo dau. "Batzuek dinoe Lagatzu Eguna herriko jairik politena dala; zer esango dogu guk, ba! Espero dogu jenteak ondo pasatzea, Carmen Mendiguren nor izan zan gogoratzea eta pastoral bat zer dan ikastea".

Izen-abizenak: _____

IBAN+Bankuko 20 zenbakiak: _____

Helbidea: _____

e-posta: _____

Telefonoa: _____

Urteko kuota, 40 €: _____

Beste bat: _____

IZAN
aikor!
lagun

Kupoa bete eta hona bidali:

Aikor! aldizkaria
Aresti kalea 2, behea
48170 - Zamudio

Bestela, mezua bidali:

747 406 561

Bestela, sartu:

www.aikor.eus

Arantzazun izan gara

t: J. Camara eta A. Astobiza, gizarteratze-teknikariak

Fraide frantziskotarrek eta herritar boluntario laikoek bultzatuta, 2014tik, Elkarrekin Bila egitasmoaren baitan, Asis Topagunean egonaldiak antolatzen dira gizartetik kanpo dauden pertsonentzat. Parte-hartzaileek Arantzazuko Santutegian bertan hartzen dute ostatu, eta hiru egunean ekintza ederrak egiten dituzte. Urtean bakarrik 11 edo 12 taldek dute egitasmoan ibiltzeko aukera, eta hortaz, oso zorionekoak izan gara han egon ahal izanagatik.

Lehenengo eta behin, aurkezpenak egin genituen: lekua bera, boluntarioak, gure elkartea eta parte-hartzaileak. Ondoren, bisita gidatua egin genuen santutegitik eta azaldu ziguten lekua zergatik garrantzitsua den. Era berean, hurbil dagoen Gomiztegi gaztandegia bisitatu genuen; hainbat gazta-mota egiteaz gainera, artzainak ere trebatzen dituzte bertan.

Aizkorri-Aratzeko Parke Naturalean dago Arantzazu, eta parke horri buruz apur bat gehiago jakiteko, bigarren egunean Parketxearen gaineko bitxikeria



batzuk kontatu zizkiguten bigarren egunean: hedadura, historia, fauna, flora... Santutegitik metro gutxira dago Parketxea. Etxeko bazkari goxo-goxoa jan genuen, eta Legazpira joan genuen Mirandaola aroztegi antzina burdina nola lantzen zen ikastera.

Amaitzeko, hirugarren eta azken egunean, Oñatiko hainbat txoko bisitatu genituen. Goiza biribiltzeko, Txokolatea interpretazio-zentrora joan ginen eta bertan azaldu ziguten Oñatik kakaoarekin duen harremana zein den, izan ere, lehen hamar txokolate-fabrika baino gehiago zeuden herrian. Elkarri agur esateko orduan, zaila izan zen esker oneko hitzak topatzea, antolatzaileei eta gurekin hiru egunean ibili ziren boluntarioei esateko.

Oso eskertuta gaude, egitasmoan parte hartzeko aukera izan dugulako, eta esperientzia berriro bizitzeko irrikan ere bai: aberasgarria, dibertigarria, interesgarria eta oso atsegina izan da. Eta lerro hauek baliatu nahi ditugu eskerrak hauei emateko: Mikel, Jose Mari Egaña, Jose Mari Garate, Jose Ramon, Elena, Mari Jose, Lourdes, Iñaki, Juan Ignacio eta Juan Miguel. Hiru egunean lagundu digute eta esperientzia euren eskutik bizi dugu. Eskerrik asko!



ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel.: 94 608 95 31

aldekone
horts klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa


–Especialitate guztiak zentro bakar batean
–Aurrekontua doan

–Especialitatea: umeak

Urte 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com



Kamamila

t: @txiribita_mundi / a: Zydea Osika (Pexels)

Matricaria chamomila, *Recutita*... Oso landare ezaguna da Euskal Herrian, eta apiriletik-maiatzetik aurrera mendira joan ohi da hura biltzera. Kamamila-mota asko daude, baina guztiek dituzte propietate eta erabilera berberak; nolahi ere, gehien erabiltzen dena da *Matricaria chamomila*.

Loreak loraldiaren hasieran biltzen dira. Udaberrian eta udaren hasieran mendietan topatuko dugu kamamila, zereallaboretan, bide-ertzetan... Biltzeko modurik onena hau da: lore-ernamuina eskuz moztu, zurtoinaren edo adarraren ahalik eta zati txikiena hartuz. Loreak fresko zein siku daudela erabili daitezke. Sikatzeko, leku aireztatu eta siku batean ipini behar ditugu, gerizpean; ondo sikatuta daudenean beirazko ontzietan gorde behar ditugu.

Sukaldean

Kamamila-ardoa lagungarria da digestioa hobetzeko. Honela egingo dugu: ardo zuri litro batean 100 g kamamila-lore ipiniko dugu aste batean. Ondoren ira-

gaziko dugu eta likidoa botila batean gordeko dugu. Oso digestio astunak izanez gero, katilukada bat edan daiteke.

Propietate sendagarriak

Batez ere digestio-minak arintzeko erabiltzen da, eta nerbioak lasaitzeko. Infusioa honela prestatuko dugu: edalontzi bat ur lapikora botako dugu, irakin, eta 6-8 lore gehituko ditugu; 10 minutuan estaliko dugu eta gero iragaziko dugu. Egunean hiruzpalau edalontzi txiki hartu daitezke. Umeek ere edan dezakete.

- Baliagarria da digestio-kolikoak eta haizeak arintzeko. Infusioa hartu behar da.
- Hainbat min arintzen ditu: hagine-takoa, hilekoak sortzen duena, erreuma, artritisa... Infusioa hartu behar da, eta olioaz edo ukenduaz masajea eman.
- Antsietatea gutxitzen du, eta lasaitu. Infusioa edan behar da.
- Hantura-kontrakoa da eta zauriak orbaintzen ditu. Odoluzkiak izanez gero, olio edo ukendua jarri dezakegu azalean.
- Eztarriko mina arintzeko, gargarak egin ditzakegu infusioarekin. Baita hortzoia handituta badugu edo beste aho-arazo batzuk baditugu ere.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

Erabilera kosmetikoak

Kamamila-xanpuak zahia gutxitzen du eta infusio kontzentratuak ilearen kolorea argitzen du. Oinarrizko osagaia da olioak edo hantura-kontrako ukenduak egiteko. Intsektuen ziztadetan ipini daiteke, zaurietan, ekzemetan eta gune minduetan. Kamamila-olioa honela egingo dugu: bederatziren bat kamamila eta zortzi bederatziren olio ipiniko dugu Maria bainuan, ordu pare batean eta su ez-tian. Ira-gazi, eta hozten denean botilatuko dugu.

Ortuan

Oso landare onuragarria da orturako, landareen onddoak uxatzen laguntzen du eta, adibidez azen, brokolien, azaloreen eta tomateen kasuan. Lurreko nutrienteak eragiten ditu, eta laboretarako onuragarriak diren hainbat intsektu erakarri. Gainera, fungizida da: prestakina egin, eta onddoak dituzten landareen hostoetan bota daiteke.

San Pedro eta Santa Luzia

(Loiu)

Ekainak 27, martitzena

- 17:00 Padel txapelketaren finala (emakumezkoak).
- 18:00 Dantza modernoaren erakustaldia.
- 18:30 Kantu Kolore.

Ekainak 28, eguaztena

- 17:00 Padel txapelketaren finala (gizonezkoak).
- 19:00 Dj Paco.
- 19:30 Txupinazoa.
- 19:45 Loreen lehiaketaren sariak ematea.
- 20:00 Tortillak aurkeztea.
- 21:00 Sariak ematea.
- 21:30 Merina Gris.
- 23:30 Oxabi.

Ekainak 29, eguena

- 12:00 Meza eta kontzertua: Miriam Cepeda eta Luis Alberto Requejo.
- 13:00 Kopaua, Batzokian.
- 18:00 Pala lehiaketaren finala, Larrondon.
- 18:30 Pelikula liburutegian, Loiu Laztana elkartearen eskutik.
- 20:00 Sardina-jana, Jubilatuen Etxean.
- 22:00 Gatibu.
- 00:15 Urrats.

Ekainak 30, barikua

- 12:00 Meza eta kontzertua: Pedro Guallar eta Jose Antonio Urdiain.
- 14:30 Nagusientzako bazkaria.
- 16:30 Iñaki Basabe.
- 18:00 Mendi martxa eta kopaua.
- 20:00 Bilbainadak.



Gatibu taldea. a: Gaizka Peñafiel

Uztailak 1, zapatua


- 10:00 Kamisetak (10 euro) eta banderak (bost euro) banatzea, plazan.
- 12:45 Tourra pasatzea.
- 13:15 Pressing Catch, Aronsotegi plazan.
- 15:30 Gazteen bazkaria.
- 17:00 Olinpiadak.
- 18:00 Elektrotzaranga.
- 21:30 Lowe.

-00:15 Akatz.

-02:00 Garilak 26.

Uztailak 2, domeka. Paella Eguna.

- 10:00 Puzgarriak.
- 13:00 Dj Xaibor, paellen zelaian.
- 16:00 Aparra.
- 16:30 Habana taldea, paellen zelaian.
- 18:00 Sariak banatzea.
- 18:30 Jamaica Orkestra, paellen zelaian.
- 21:30 Jaien amaiera eta txokolatada.



Angel Mari Peñagarikano,
a: Ataria aldizkaria

Goitioltzako jaiak (Lezama)

Uztailak 7, barikua

- 18:00 Txupinazoa eta jaien hasiera, dultzaineroek alaituta.
- 18:00 Umeentzako puzgarriak.
- 21:30 Xaibor.
- 23:30 Dj USB.

Uztailak 8, zapatua

- 10:00 Mahai eta aulkiak banatzea.
- 10:30 Zorribike antolatutako ume eta gazteentzako zirkuitoa.
- 12:00 Kurutze dantza-taldearen emanaldia.

-13:00 Paella lehiaketan izena ematea.

-14:00 Paellak aurkeztea eta sariak banatzea.

-17:00 Umeentzako ur-puzgarriak.

-17:30 Nagusientzako lehiaketa.

-20:00 Taberna Ibiltaria.

-22:30 Dj Ismeder.

Uztailak 9, domeka

- 13:00 Txakolina dastatzea bertsoz jantzita. Angel Mari Peñagarikano eta Arkaitz Estiballes bertsolariak bertan arituko dirabatean.



Bereziak

Asko disfrutatzen dut hegazkinei argazkiak egiten, baina batez ere hegazkin berezeiei argazkiak egitea gustatzen zait. Aldez aurretik ikerketa-lan handia egin behar izatea ekartzen du horrek: Loiu aireportura noiz etorriko diren, zein ordutan...

Argazkia: Miguel Peñafiel

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kinesitasia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriendi etorbidea, 9 - Larja | Antsaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 SONDIKA
944 711 282
Info@inmobiliariatxorierrri.com

Centro Dental
Txorierrri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mixine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885
www.cdtxorierrri.es

ORTODONCIA21

TURREGOITI
JATETXEA

Laurroeta etorbidea, 27
48160 Lailu-Bizkaia
T-Faxo: 94 453 24 40
restauranteturregoitii.com

Alaia
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua

Talfer 5
48170 Zamudio
946 850 585

Berenjena eta piper salteatuak, jogurt-saltsarekin

Osagaiak (lau laguntzat):

- Berenjena bat
- Piper beilegi bat
- 60 ml ardo zuri
- Berakatz pikorkatua
- Limoi-birindura
- Ezkaï sikua edo freskoa
- Jogurt natural bat
- Gatza eta oliba-olioa
- Limoi-ura
- Pipermin-pasta (nahierara)
- Piperbeltz beltz ehoa

Prestatzeko era:

Barazkiak ondo garbituko ditugu. Berenjena kubo txikitik ebakiko dugu, eta piperra, tiratan (haziak kenduko ditugu). Piper tirak zartagin batean salteatuko ditugu minutu batzuetan, harik eta biguntzen hasten diren arte. Berenjena gehituko dugu, eragin, eta ardo zuria botako dugu. Alkohola lurruntzen denean gatzpipertuko dugu, eta berakatz eta limoi-birindura gehitu. Salteatuko dugu eta azkenean ezkaï gehituko dugu. Jogurt-saltsa egiteko, gainerako osagaiak nahastu, eta hagaxkak erabilia irabiatuko dugu, testura homogenea eta krematsua lortu arte. Oso lodi badago, olio apur bat erabili dezakegu saltsa arintzeko.



a: Shvets Production (www.pexels.com)

Pasta Caprese

Osagaiak (4 pertsonentzat):

- 250 g pasta
- 10 g albaka fresko
- 150 g cherry tomate
- 100 g mozzarella (bolatxoak)
- Gatza
- Oliba-olioa

Prestatzeko era:

Pasta egosiko dugu *al dente* egon arte. Xukatuko dugu, olio-zurrusta bat botako diogu eta eragingo dugu. Mozzarella-bolatxoak ere xukatuko ditugu, eta gorde. Albaka garbitu, sikatu eta txikituko dugu. Era berean, cherry tomateak garbituko ditugu, eta erditik moztu. Ontzi zabal batean ipiniko ditugu pasta, mozzarella-bolatxoak, cherry tomateak eta albaka. Osagaiak nahastuko ditugu. Azkenik, gatza eta oliba-olioa botako dugu. Dena ondo nahastuko dugu, mahaira atera baino lehen.



a: RDNE Stock Project (www.pexels.com)

**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

**PATXI
KOOP**

PAIZKI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nafarroa Garaia | Euzkadi 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 520 825 | info@patxi.coop | www.patxi.coop

**HARATEGIA
ALBERTO**

Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO


**ZAMUDIO-DERIOKO
LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: www.turbulus.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Egarria (Alberdania), Josu Penades.
- Maskara baten aitortza (Igela), Yukio Mishima.
- ÑO! (Argia), Maitane Gartziandia Agirrezabala, Miren Artetxe eta Eli Pagola.
- Mariokerrak: Nola esan/izan bollera euskaraz (Txalaparta), Amaia Alvarez Uria eta June Fernandez Casete.
- Horma (Erein), Marlen Haushofer. Itzultzailea: Naroa Zubillaga Gomez.

LITERATURA: GAZTEAK

- Gorputz guztiak dira ederrak (Tarttalo), Beth Cox. Ilustratzailea: Samantha Meredith.
- Narrasean (Sua edizioak), Katti Olaizola Gabirondo eta Jon Patxi Aiaitui Iturbe. Ilustratzailea: Paul Caballero Barturen.
- Dinosaurs sanctuary 1 (Harriet Ediciones), Itatu Kinosita.

Sudokua

5	2			1	9
	3		2	6	5
		5			4
4		3	6		2
7	5	1			
				2	
			9		1
9			1	4	7

7	5	7	1	9	3	8	2	6
1	8	9	6	7	2	4	5	3
3	2	6	5	8	4	1	9	7
8	6	3	9	1	4	5	9	7
2	1	7	9	3	6	5	4	8
6	4	5	7	2	8	6	3	1
4	3	2	8	5	1	7	6	9
5	6	8	2	6	7	3	1	4
9	7	6	4	3	1	2	8	5

Zure taxi, Teorissika

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESCARGA APP-A

TAXI FEMADE

Amarri
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburumbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419



Minions, el origen de Gru filma



Padre no hay más que uno 3 filma



Andoni Agirregomezkorta. a: Loinaz representacion

Dantzak

Sondika

- > Nazioarteko Folklore Jaialdia: Uganda, Indonesia eta Gorantzailleak. Uztailaren 21 ean, 20:00etan, Goronda Beko kiroldegiko frontoian.

Ikuskizunak

Sondika

- > Dj Porru (umeentzat). Uztailaren 1ean, 20:00etan, Larrabarrenan.
- > *Minions, el origen de Gru*. Uztailaren 8an, 22:00etan, Larrabarrenan.
- > Bakarrizketak: Andoni Agirregomezkorta eta Maribel Salas. Uztailaren 22an, 22:00etan, Larrabarrenan.

Derio

- > *Urbasa* kale-ikuskizuna. Ekainaren 23an, 22:30ean, eskola inguruan.
- > *Snark* kale-antzerkia. Uztailaren 7an, 18:00etan, udako igerilekuetan.
- > *Padre no hay más que uno 3* pelikula. Uztailaren 21 ean, 22:00etan, kantxetan.

Jaiak

Txorierrri

- > San Joan gaua. Ekainaren 23an.

Larrabetzu

- > Gazte Eguna. Uztailaren 29an.
- > San Inazio. Uztailaren 31n.

Musika

Sondika

- > Puro Relajo. Uztailaren 15ean, 22:00etan, Larrabarrenan.

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 85

639 57 98 48 – 639 58 25 47

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai izaguzi Facebook-en

tik tak

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55

Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

IZAN aikor! lagun



Neurea, geurea.

KATTALIN BARCENA

J Martina taldearen abeslaria

“Ezinbestekoa da Aikor! aldizkariari laguntzea, gazteoi ahotsa ematen digulako eta bertan antolatzen diren ekintzen berri ematen duelako”

Lagatzu Eguna Euskal Jaia 2023

Ekainak 24

12:00 CARMEN MENDIGUREN PASTORALA
(Zamudioko herritarren eskutik)

13:30 KALEJIRA
Bertoko eta Kantareluxen eskutik

15:00 HERRI BAZKARIA
Agirre Plazan

20€ nagusientzat
15€ umeentzat
Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai
Erosteko azken eguna ekainaren 20a

17:00 TABERNA IBILTARIA
UMEEN JOKUAK: ZURESKU
Egurrezko jolas tradizionalak

20:00 ERROMERIA
Gora Herria taldeagaz

Animatu eta parte hartu koadrileagaz.
Atara armairutik euskal jantziak!

Zamudioko
talde
eta herritarren
ezinbesteko
laguntzea
euki dogu.